

**Olaztiarrek parte-  
hartze aurrekontuekin  
Vicente Argomaniz  
plaza aldatzea  
erabaki dute** / 9

**'Zama doinuz arindu'  
jaialdia izanen da  
etzi, 17:00etan eta  
19:30ean, Etxarriko  
kultur etxean** / 22

## Bere horretan

Jaitsiera txiki bat izan bada ere, Sakanak populazioari eusten dio / 5

**Altsasu**  
7.407  
+36 / % 0,49

**Arbizu**  
1.124  
-20 / -% 1,78

**Iturmendi**  
403  
+21 / % 5,50

**Arakil**  
949  
-16 / -% 1,69

**Bakaiku**  
345  
+17 / % 4,93

**Arruazu**  
1124  
+4 / % 3,77

**Irurtzun**  
2.233  
+24 / % 1,09

**Uharte Arakil**  
805  
0

**Ergoiena**  
384  
-12 / -% 3,13

**Olatzagutia**  
1.489  
-8 / -% 0,53

**Irañeta**  
172  
-4 / -% 2,27

**Ziordia**  
348  
-13 / -% 3,60

**Lakuntza**  
1.279  
+7 / % 0,55

**Urdiain**  
653  
-22 / -% 3,26

**Etxarri Aranatz**  
2.483  
-20 / -% 0,80

**Sakana**  
-6 / -% 0,03

# Kultur jarduerak tabernetan

Urteak joan ahala, tabernen dinamika aldatuz joan da. Dinamika berri horren parte kultur jarduerak antolatzea da, eta badaude Sakanan antolatzen dituzten tabernak; besteak beste, Barandi Taberna, Haritza Taberna eta Arkatz liburu-denda eta Pikuxar



UTZITAKOIA

**ARITZ BARANDIARAN** BARANDI TABERNA  
Olatzagutia

**Rebeka Mendoza**

**1** 2015eko irailean. Taberna garilean ireki genuen eta ikuskizunak irailetik aurrera izatea erabaki genuen, udazkena eta neguan jarduera gutxi daudelako herrian.

**2** Lehen taberneak beste era batera funtzionatzen zuten. Gaur egun, aldiz, eskaintza zabalagoa da eta kontzertuen bidez jendea erakartzen saiatzen gara. Gainera, guk gustura antolatzen ditugu.

**3** Daten eta artisten arabera. Egutegia aztertu eta artistekin kontaktuan jartzen gara, batzuetan beraiek ezin dute baina hainbat kontaktu ditugunez beti proposamen bat aurrera ateratzen dugu. Hala ere, ez dugu orden bat jarraitzen, aste batean dj-ak izan ahal ditugu eta hamabost egunetara bakarriketa bat...

**4** Gauza txikiak egiten ditugu, akustikoak, monologoak, magoak, mariatxiak... Formatu txikiko sortzaileak.

**5** Jarduerak ez ditugu publiko jakin bati begira antolatzen. Hainbat ekitaldi antolatzen ditugu, jende nagusiarendako eta gazteendako berdinduz.

**6** Hilero behin gutxienez, batzuetan bi. Irailetik maiatzera antolatzen ditugu. Sakanako negu tristeak alaitzeko.

**7** Garai ona negua, eta txarre-na uda da.

**8** Orokorrean oso harrera ona dute, guk gustuko ditugulako antolatzen ditugu eta, era berean, jendeari eskaintza ematen diogu. As-teburu batzuetan Olatzagutian ezer ez dagoenean antolatzen ditugu eta jendeak asko eskertzen du.

**9** Bai, atek irekiak ditugu. Gure sare sozialetan zabalitzen ditugu, jendeak gure Instagramen edota Facebookean gure ekitaldiak topatu ditzake.

**10** Bai, Santa Agedarako Ohian Vega dugu eta inauterietarako zerbait prest dugu baita ere. Aurrerago, garilaren 17an, gure V. urteurrena izango da eta zerbait berezia prestatzen ari gara.

**1** Noiz hasi zineten tabernan kultur jarduerak antolatzen?

**2** Zergatik?

**3** Nola aukeratzen duzue zein artista ekarri?

**4** Zein arlotako sortzaileak dira? Musikariak, idazleak...

**5** Jendearen arabera artista bat edo beste ekartzen duzue?

**6** Zein maiztasunarekin antolatzen dituzue jarduerak?

**7** Zein da garairik onena? Eta txarre-na?

**8** Orokorrean, jendearen erantzuna nolakoa da?

**9** Edonor bertaratu daiteke?

**10** Urte honi begira, aurreratu al diguzue ekitaldiren bat?

**Guaixeren 25. urteurrenaren Batzen gaituena kit-ak salgai**

**POLTSOA + TXAPAK + BOLIGRAFOA**  
Bazkideendako 4 € / Gainontzekoendako 6 €

**Altsasun**  
Arkatx liburu-denda  
Liburunda liburu-denda  
AEK-ko euskaltegia  
Etxarri Aranatzen  
Kaxeta liburu-denda

**Beleixe Irratian (9etatik 12etara)**

**Arbizun**  
Arbizuko Eko kanpinean  
Irurtzun  
Pikuxar  
Martxueta liburu-denda

**Guaixe 25**  
batzen gaituena





REBEKA MENDOZA

## IGOR MINTEGI ETA ELENA ALDASORO HARITZA TABERNA ETA ARKATZ LIBURU-DENDA Aitsasu

### Rebeka Mendoza

1 Orain dela hiru edo lau urte. Gure iritziz, Altsasun udaletik aparte beste eskaintza bat izatea beharrezkoa zen.

2 Aurretik, Haritzan kultur ekintzak egiten ziren. Arkatz liburu-dendan hitzaldiak antolatu nahi genituen, baina liburu-dendak leku gutxi duenez, elkarlanean hasi ginen.

3 Bertakoak ekartzea gustatzen zaigu. Salmentak kontuan hartzen ditugu ere, baina gehienbat gertuko idazleak dira, ahots handirik ez duten horiek.

4 Idazleak gehienbat. Antolatzen ditugun aurkezpenak irakurgai baten inguruan dira. Ilbeltzean, adibidez, La Fugako abeslariak bere poema liburua ekitaldi musikatua batekin aurkeztuko du.

5 Norbait oso gustukoa baldin bada saiatzen gara berarekin kontaktuan jartzen, baina batzuetan ezin dute hona etorri editorialengatik edo bestelako arrazoiengatik.

6 Hilabetearen behin gutxienez, garaiaren arabera gehiago edo gutxiago prestatzen ditugu.

7 Normalean uda okerrena izaten da eta onena negua, eguraldi txarrarekin jendea tabernara gehiago gerturatzen delako.

8 Denetarik egon da, batzuetan 5 pertsona egon gara eta beste batzuetan 40 baino gehiago. Idazlearen arabera jende gehiago edo gutxiago gerturatu daiteke.

9 Bai, beti gonbidapen bat Haritza tabernan edo Arkatz liburu-dendan hartuz etor daiteke. Gon-

bidapenak dohainik dira eta jende kopurua zein den jakiteko dira.

10 Hasteko, ilbeltzaren 21ean La Fugako abeslaria Pedradas liburua aurkezten izango dugu, bere gitarra laguntzailearekin etorriko da. Gero, Eguzkilore editorialarekin batera Haritza Bergara Jentilak liburua aurkeztera etorriko da. Esan beharra dugu ere, Toti Martinez de Lezearekin eta Almodena Cid gimnasta ohiarekin hizketan hasi garela. Azken horrek, haur literaturako liburuak argitaratu ditu eta orain euskaratu dituzte. Baina oraindik badugu lana datak zehazteko eta ekintzak prestatzeko. Hori bai, maiatza edo garagarria aldera, ikasturteko kultur agenda despeditzeko, Ibon Martinek bisita gidatua antolatuko dugu.

### Rebeka Mendoza

1 Lehenik eta behin Pikuxar taberna bat baino gehiago dela esan nahi dut. Tabernaz gain, elkarte bat gara. Pikuxarren sorrerarekin batera, orain dela 17 urte, hasi ginen kultura eta euskararekin lotuta dauden ekitaldiak antolatzen. Kopuruetan gorabeherak egon arren, urtero ekintza ezberdinak antolatzen ditugu.

2 Garai horretan, Irurtzunen euskara eta kultura bultzatzeko beharra ikusten zen. Herriko gazte batzuk elkartu ziren eta proposamen hau sortu zen.

3 Batzuetan bazkideak dira, beste batzuetan bazkideen eza-gunak, beste batzuetan artista famatuak dira... Adibidez, behin sortzailea bera gurekin harremanetan jarri zen.

4 Denetarik, taberna barruan erakusketak nabarmentzen dira, hiru edo lau astetik behin egiten dira. Kontzertuak izaten ditugu ere, eta azken urteetan liburuen aurkezpenak gailendu dira.

5 Proposamen interesgarri bat egiten badute baloratzen dugu eta aurrera atera daiteke, bai.

6 Hilabetearen arabera, eguberri aldera gehiago antolatzen ditugu jendea libreago dagoelako. Noski, urtean zehar data nabarmenagoak daude: inauteriak, festak... Egia esan, asteburutan oreka bat bilatzen saiatzen gara, denbora luzez ekitaldirik gabe ez egoteko.

7 Taberna barruan egiteko gauzak badira neguan egiten ditugu eta udaberria aldera eta udazkenean kalean egin ahal ditugu, beraz garaiek ez digute asko kaltetzen.

8 Jendeak beti parte hartzen du, bai elkarteko jendea, bai herriko jendeak bai alboko herrietako jendeak ere. Oso pozik gaude, 2019 Gau-beltzaren ingurunean proposamen berri bat egin genuen eta oso arrakastatsua izan zen. Aurten berriz errepikatuko dugu segur aski.

9 Ia denak jendearendako irekita daude, bai elkartean egiten diren jarduerak bai plazan edo kalean egiten ditugunak.

10 Oraingoan data finkoak mantenduko ditugu eta urtea aurrera joan ahala jarduerak berriak prestatuko ditugu ere. Momentuz inauteriak bertan ditugu eta horien inguruan zerbait egingo dugu. Dena den, ilbeltzean hitzaldiren bat egitea pentsatu dugu baina oraindik prestatzen ari gara.

**"KONTZERTUEN BIDEZ  
JENDEA ERAKARTZEN  
SAIATZEN GARA"**

**"BERTAKO SORTZAILEAK  
EKARTZEA GUSTATZEN  
ZAIGU"**

**"JENDEAK PARTE  
HARTZEN DU, POZIK  
GAUDE"**



REBEKA MENDOZA

**IRATI GONZALEZ PIKUXAR EUSKAL TXOKOA**  
Irurtzun



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

## Emakumeak, ile-apaindegiak eta irakurgaiak

Emakume gehienok joaten gara ile-apaindegira, sarritan ez bada, noizean behin. Ordu bat, bi ordu edo gehiago egiten ditugu bertan joaten garen bakoitzean; badugu, hortaz, tartea berriketarako zein irakurketarako. Mota askotako emakumeak hurbiltzen gara bertara, adina tarteko (haurrak, gazteak, adinekoak); gustu, iritzi, pentsamolde askotakoak. Ile-apaindegietako bezeroen artean halako aniztasuna badago ere, ile-apaindegietan eskaintzen zaizkigun irakurgaiak mota bakarrekoak direla esan nuke (baliteke oker egotea), gehien partean, prentsa arrosaren inguruak, orrazkerari eta modari buruzkoak, eta jakina, ia guztiak gaztelaniaz. Horrek pentsatzeko bidea ematen dit.

Badirudi, bat, ile-apaindegira joaten garen emakume guztioi aldizkari horiek irakurtzea gustatzen zaigula, eta, bi, irakurgai horiek direla ile-apaindegian irakurri daitezkeen aldizkari bakarrak. Horren harira, galdera batzuk datozkit burura: zergatik mantendu identifikazio hori, alegia, ile-apaindegia, prentsa arrosa (gaztelaniaz) eta emakumea? Zergatik mugatu irakurgai horietara bakarrik? Zergatik, bestalde,

## ZERGATIK EZIN DIRA EUSKARAZKO ALDIZKARIAK EDO IRAKURGAIK ERE ILE-APAINDEGIETAN EGON?

hezkuntza arlotik, neskato gazteen artean STEAM karrerak eta lanbideak (zientzia eta teknologiaren arlokoak) sustatzeko ahalegin eta egitasmo handi samarrak (beharrezkoak) jartzen dira martxan eta ez dira osatzen beste ahalegin xumeago baina, apika, eragiteko eremu handi samarra izan ditzaketen beste batzuekin? Zergatik ezin dira

euskarazko aldizkariak edo irakurgaiak ere ile-apaindegietan egon?

Ez dut uste oso zaila denik era askotako irakurgaiak ile-apaindegietara zabaltzea. Euskaraz aukera egon badago, batzuk aipatzearen, Elhuyar aldizkaria (Zientzia eta teknologiari buruzkoa), Gaztezulo (gazteek irakurtzeko modukoa), Guaixe, Argia... edota komikiak, ipuinak. Irakurgai eta aldizkari horiek ile-apaindegietara eramateko modua ere egon badago, herri gehienetan ditugun liburutegien bidez maileguan hartu baitaitezke.

Hortxe ba, esanda dago!

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

## Iraxeko elkarkide batek Popularreko akzioetan inbestitutako guztia berreskuratuko du

### IRATXE KONSUMITZAILEEN ELKARTEA

Iraxek Banco Popularraren aurkako lehenengo epai irmoa irabazi du. Banco Santanderrek (Popularra euro batengatik erosi zuelarik) kaltetuari 2016ko azaroan erakundearen akzioetan inbestitu zituen 2.600 euroak itzuli beharko dizkio.

Elkarteak gai honengatik kaltetutako 180 pertsona defendatzen ditu eta auzitegien aurrean lehenengo hamabost demandak aurkeztu ditu. Eskatutako kopuruak 2.000 eta 80.000 euro baino gehiagoko tartean daude.

2017ko ekainaren 7an Banco Santanderrek Banco Popular erosi zuen euro batengatik. Eragiketaren ondorioz erakundearen akziodunak eta mendeko zorraren titularrek beren inbertsioen balio guztia galdu zuten. Gure Elkarteak

salmentaren unea ezgeroztik hasi zen lanean kaltetutako kontsumitzaileen eskubideak babesteko.

Irabazitako epaiaren kasuan, kontsumitzaileak 2016ko azaroan Banco Popularreko akzioak erosi zituen 2.599 euroko balioarekin, urte horretako maiatzean bankuak onetsitako kapital handitzea barne. Iraxeko elkarkideak erakunde auzitara eraman zuen bere egoera ekonomikoari buruz informazio faltsua emateagatik.

Epaiak bankuari gogoratzen dio halako kasuetan bere egoera finantzarioari buruz informazio "argia eta ulergarria" emateko betebeharra duela. Halaber, nabarmentzen du informazio horrek garrantzi handia duela pertsona batek akzioak erosteko erabakia hartzeko orduan. Tuterako epaitegiak erabaki zuen Banco Popularrek kapital handitzearen aurreko urteetan argitaratutako kontuetan "ez zutela benetako egoera finantzarioa era egokian adierazten".



## OBJEKTIBOTIK




Galder Gonzalez @theklaneh

Faltan botatzen nuen euskalki vs batua eztabaida. Zuek ez?



Galder Gonzalez @theklaneh - 20 h

Urdaingo euskara Erakutsi haria



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

**Diseinu zerbitzua:**  
GK, Ainhora Etxeberria Pikabea  
gk@gkomunikazioa.eus

**Administrazioa:**  
Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

**Kolaboratzailea:**  
Rebeka Mendoza  
**Zuzentzailea:**  
Maria Luisa Zelaia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



**Nafarroako Gobernua**  
Gobierno de Navarra




## Ekintzaileen eskutik 14 enpresa berri sortu dira

Cederna-Garalurrek 34 ekintzaile lagundu zituen joan den urtean. 17 autonomo gisa ari dira

### SAKANA

Cederna-Garalur Nafarroa Ekintzailea sareko kide da eta ekintzailetza sustatzeko zerbitzua eskaintzen du. Zerbitzu horren bidez Cederna-Garalurrek 34 ekintzailei babes eta aholkularitza eman zien joan den urtean. Haietako 20 emakumezkoak ziren eta gainontzeko 14ak gizonezkoak. Cederna-Garalurren aholkularitza horri esker 14 enpresa sortu ziren eta 17 langilek autonomo gisa izena eman zuten joan den urtean. Lege formari dagokionez, 11 banako enpresari gisa ari dira eta beste hirurak sozietate irregular gisa eratu ziren. Cederna-Garalur kide den Nafarroa Ekintzailea sare Nafar Lansarek, La Caixa eta Caja Navarra fundazioek finantzatu zuten.

Arbizuko industrialdean dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan, dauka Cederna-Garalurrek egoitza. Astegunetan 08:00etatik 15:20era, pasa daiteke egoitzatik. Ekintzailetza zerbitzuan, hitzordua eskatuta, Altsasun astelehenetan ematen dute laguntza eta aholkularitza. Harremanetan jartzeko 948 567 010 telefonora hots egin edo sakana.admon@cederna.es e-postara idatz daiteke.



Sakanako populazioaren garapenaren grafika.

## Sei sakandar gutxiago urte betean

Ibarrean 20.189 sakandar bizi ginen 2019ko ilbeltzaren 1ean, aurreko urtean baino % 0,03 gutxiago. Sakanan gizonezkoak 10.380 ziren eta emakumezkoak, berriz, 9.809. Bien arteko aldea handitu da eta 34 gizonezko gehiago zenbatu zituzten

### SAKANA

Sakanak 2014 eta 2017 urteen artean 624 biztanle galdu zituen. Populazioaren beherako joera 2018an moztu zen. Baina 2019ko aurreneko egunean egindako zenbaketak biztanlerian jaitziera txikia ekarri du: 6 sakandar gutxiago, guztira 20.189. Haietatik 10.380 (% 51,41) gizonezkoak dira, 2018an baino 14 gehiago (% 0,14ko hazkundera). Emakumezkoak, berriz, 9.809 dira (% 48,59), 2018an baino 20 gutxiago (% 0,20). Beraz, emakumezkoak baino 571 gizonezko gehiago daude Sakanan (34 eta % 6,33 gehiago). Ibarreko udalerrri guztietan daude gizonezko gehiago emakumezkoak baino.

### Udalerrria

15 dira Sakanan dauden udalerrriak eta haietako seitan soilik igo da biztanleria. Portzentaiari erreparatuta, herritar gehien irabazi duen udalerrria Iturmendi da (% 5,5; 21 biztanle gehiago). Atzetik ditu Bakaiku (% 4,93; 17), Arruazu (% 3,77; 4), Irurtzun (% 1,09; 24), Lakuntza (% 0,55; 7) eta Altsasu (% 0,49; 36). Soilik hiru herri eusten diote aurreko urteko biztanleriaren gorako joerari: Arruazuk, Irurtzunek eta Lakuntzak. Urte bat pasata ere populazio bera duen herri bakarra Uharte Arakil da.

Populazioa galtzen dutenen segida, ehunekoari erreparatuta, honakoa da: Ziordia (-% 3,6; -13),

Urdiain (-% 3,26; -22), Ergoiena (-% 3,13; -12), Irañeta (-% 2,27; -4), Arbizu (-% 1,78; -20), Arakil (-% 1,69; -16), Etxarri Aranatz (-% 0,8; -20) eta Olatzagutia (-% 0,53; -8). Populazioa galdu duten udalerrien artean bik errepikatzen dute. Ergoienak eta Olatzagutiak. Burundako herria 2018an 1.500 biztanleko mugatik jaitzitu egin zen eta beherako joerarekin segitzen du. Bestalde, Etxarri Aranatzek estreinako 2.500 herritarreko muga pasatu zuen 2018an, baina, atzera ere behera egin du.

### Hamar urte atzera

2019ko eta 2010eko datuak parekatzean agerian gelditzen da Sakanak 616 biztanle galdu di-

tuela, % 2,96. Generoari erreparatuta, duela 10 urte baino 369 gizonezko gutxiago (% 3,43) bizi gara ibarrean. Emakumezkoak dagokienez, berriz, 247 gutxiago (% 2,46). Herritik herrira biztanleriaren jokaera aldatu egiten da azken 10 urteetan. Zazpi herritan igo da populazioa hamar-kada batean. Portzentaiari erreparatuta hazkunde handiena Irañetak izan du: % 9,55 eta 15 irintar gehiago. Atzetik honako udalerrriak ditu: Bakaiku (% 6,47; 22), Lakuntza (% 4,95; 60), Arbizu (% 2,03; 22), Iturmendi (% 0,75; 3), Irurtzun (% 0,13, 3) eta Etxarri Aranatz (% 0,04, 1).

Azken 10 urteetan populazioa galdu duten herriak zortzi dira. Ehunekoari erreparatuta biztanle galera handiena duen udalerrria Ergoiena da, % 13,38 eta 60 herritar gutxiago. Herritarren galdean Lizarragaren atzetik honakoak heldu dira: Olatzagutia (-% 13,38; -230), Ziordia (-% 11,22; -44), Urdiain (-% 8,03; -57), Uharte Arakil (-% 7,04; -61), Arakil (-% 3,32; -32), Altsasu (-% 3,31; -255) eta Arruazu (-% 2,65; -3).

### Nafarroa

Aurreko urteko goranzko joerari segituz, 2018tik 2019ra Nafarroak 6.660 herritar irabazi zituen, % 1,03. Haietatik emakumezkoak 330.583 ziren, % 50,53, aurreko urtean baino 3.498 gehiago, % 1,07ko hazkundera. Gizonezkoak, berriz, 323.631 ziren, % 49,47, 2018an baino 3.162 gehiago, % 0,99. Nafarroako populazioak gora egitean eta Sakanakoak behera, ibarra Nafarroako biztanlerian duen pisua txikitu egin da eta joan den urtean sakandarrak herrialdeko biztanleriaren % 3,09 ginen, % 0,02 gutxiago. 2017tik 2019ra % 0,07ko pisua galdu du Sakanak Nafarroan.

08:30 Nafarroako albisteak  
Euskalerrria iratiaren eskutik  
10:00 Prentsa eta eguraldia  
10:15 Bateti bestia  
10:20 Eguneko albisteak  
10:45 Hizketan  
11:15 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin  
11:55 Agurra



**GOIZERO**  
**10:00-12:00**  
**EGUN ON**  
**SAKANA**

irratia@beleixe.eus  
948 567 074

# Txori erakusketa laugarrenez antolatu dute

Igandean, 09:00etatik 14:00etara, frontoian. Milatik gora hegazti ikusteko aukera izanen da. Gipuzkoako eta Nafarroako 14 txori hazlek osatzen duten Aralar mendi ornitologia elkarteak da antolatzailea; lau sakandar bertako kide dira

## SAKANA

Kanarioak, kardamiruak, bermelloiak, gailupak, perikitoak, rosellak, agapernisak... eta beste arraza mordo bateko hegaztiak ikusteko aukera eskainiko du IV. Olatzagutiko Txori Erakusketak eta Trukaketak igande goizean. Aralar mendia Ornitologia Elkarteak antolatu du erakusketa. Bertako kide da Juan Carlos Mateos Garzia iturmendiarrak eta laugarren edizioa dutela aipatuta halaxe laburbildu digu erakusketa-trukaketaren historia: "bazkide olaztiar baten ideia izan zen. Aurrenekoa kontu handiz antolatu genuen, abentura bat baitzen. Funtzionatu zuen eta jendea joan zen. Bigarrenak jende gehiago erakarri zuen. Eta joan den urtean gainezka egin zuen".

Azken edizioko esperientziagatik igandean Olatzagutiko udal pilotalekuan 100 eta 150 txori hazle artean elkartzea espero dute. Eta haiek hainbat arraza-



Jendea txoriei begira. ARTXIBOA

tako 1.000 edo 1.500 hegazti jarriko dituzte ikusgai Olatzagutiko udal pilotalekuan. "Joan den urtean baino mahai gehiago jarriko ditugu". Izan ere, Gijon, Avila, Bartzelona, Zaragoza, Errioxa, Burgos eta Hego Euskal

Herriko txori hazleak espero dituzte. Bisitariek txoriak ikusi eta haiek miretsi eta hazleei galderak egiteko aukera izanen dute.

Hala ere, trukaketa izanen da igandeko hitzorduko tarterik garrantzitsuena. Mateosek azaldu digunez, "hazle bakoitzak gauza jakin bat bilatzen du hegaztietan, nork bere hazteko modua baitu. Trukeak egiteko ez du balio argazkiak trukatzek. Hegaztiak aurrez aurre ikusi behar dira. Eta, hala ere, batzuetan bilatzen ari zarena ez duzu opatzen". Trukaketak hazlearen hegaztiak genetikoki berritzeko ere baliagarriak direla aipatu digu. Igandean ikusgai izanen diren hegazti guztiek federazioaren dagokion eraztuna izan beharko dute jarrita. Erakusketa-trukaketak Olatzagutiko Udalen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza dute antolatzaileek, "haien parte-hartzerik gabe ezin izanen litzateke antolatu".



Uharte Arakilgo egutegian pilota partida baten irudia ikus daiteke. UTZITAKOIA

## Herri-egutegiak etxeetan zintzilik daude dagoeneko

Lau herrietako etxeetan bertan sortutako egutegia dute zintzilik. Eragileek ere eurenak argitaratu dituzte

## SAKANA

Herriko argazkiak protagonista dituzten egutegiak daude Uharte Arakilgo, Arbizuko, Bakaikuko eta Ziordiko etxe askotan. Ondare taldeak 4. urtez argitaratu du, oraingoan argazki zaharrek. Arbizuko Udalak estreinakoz egin eta banatu du herriko egutegia. Bakaikun seigarrenez argitaratu dute herriko egutegia. Ekimen horrek lau urte bete ditu Ziordian. Kultura batzordeak ziordiarrei argazkiak eskatu zizkien eta haiekin osatu dute herriko egutegia. Hala egin zuten duela bi urte ere. 2019ko

irudiak, berriz, Javier Legazenenak ziren.

Sakanan bestelako egutegiak ere sortu dira. Esaterako, Irurtzongo Pikuxar euskal txokoaren egutegian protagonistak bere bazkide guztiak dira eta irudiak egoitza berrian kokatuta daude. Etxarri Aranatzen V. Zama doinu arinduz elkartasun musika jaialdia izanen da igandean eta antolatzaileek egutegia salgai jarri dute. Altsasukoak Aske plataformak ere urte berriarekin auziari buruzko egutegia argitaratu du. Eta gauza bera egin du Mila Kolore elkarteak ere.



## Kinto buruzagiak aukeratuta

Altsasuko 2020ko kintoen buruzagiak Aintzane Bengoetxea Garisoain, Izaro Agirre Poveda, Julen Barreiro Nieto eta Eneko Galartza Pozueta dira. Hala erabaki zuen astelehenean egindako zozketak. Aurtengo kinta 27 emakumezko eta 22 gizonzko osatzen dute.

Guztiak ere Txetxo Jimenez, Aitziber Etxaiz Soria eta Maixabel Lopez de Uralde Muñoz irakasle dituztela zortzikoa, jota eta porrusalda dantzatzan ikasten hasi ziren, nahiz eta dantzari direnak ez duten asko behar. Kintoak larunbat gauero kafea hartzera elkartuko dira.



WWW.UROLAKOSTA.HITZA.EUS

## Aldasoro harategiaren urte ona

Modu ezin hobean despeditu zuen urtea Patxi Aldasoro Guajardok, Olatzagutiko Aldasoro harategiak. Izan ere, Donostian abenduaren 21ean jokatu zen XXIV. Euskal Herriko Txistorra Lehiaketa irabazi zuen. Aurretik, VII. Euskal Herriko Txorizo Egosi Txapelketan bigarren sailkatu zen Azpeitian eta XIV. Nafarroako Txistorra Txapelketan hirugarrena izan zen.



## Udalarendako garbitasunean aritzeko deialdia

Uharte Arakilgo Udalak garbitzaile lanpostuan aldi baterako kontratuarekin aritzeko izangaien zerrenda bat hautaprobez bidez eratzeko deialdia egin berri du. Udalaren asmoa da horrela sortzen diren beharrei erantzutea. Uharte Arakilgo Udalaren deialdian aurkeztea interesa duten pertsonak bihurtik aurrera 15 egun balioduneko epea dute euren eskabidea aurkezteko. Izangaien onarpena egin ondoren, oposizioaldia etorriko da. Horretan lanpostuari dagokion euskarra maila ahozko proba bidez aztertuko da eta, ondoren, hautagaiek test moduko galderak dituen proba teorikoa egin behar dute.

## Ordezko bake epailearen kargua hutsik Iturmendin

Iturmendiko Udalak jakinarazi du herriko bake epaile ordezkoaren kargua betetzeko dagoela. Hautatuak izateko interesa dutenek, legezko baldintzak betetzen badituzte, eskabideak udaletxean aurkeztu ditzakete dagoeneko. Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Udalak osoko bilkuran eta gehiengo osoz hautatuko du bake epaile ordezkoaren kargurako, eskabidea aurkezten duten izangaien artean, legez ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Eskabiderik ez bada, Iturmendiko udalbatzak libreki hautatuko du ordezko bake epailea, betiere prozedurako baldintza berberei jarraikiz.

## Udala bake epaile titularren eta ordezkoaren bila

Bakaikuko Udalak bake epaile titularren eta ordezkoaren kargu hutsak betetzeko deialdi publikoa egin du. Legez eskatzen diren baldintzak betez gero, eskabide-orrria aurkeztu beharko du Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdi horretan parte hartu nahi dutenek, bihurtik aurrera hamabost egun balioduneko epean.

# Basoko txartela bost urterako izanen da

Orain arteko txartela ibilgailuan itsatsiko den pegatina batek ordezkatu du. Bestetik, aurtan frontoiko argiteria berritzeko lanek segituko dute. Bestelako lanak ere aurreikusita dituzte Euskalerrriari udal pilotalekuan

ETXARRI ARANATZ

Basoko pisten eta bideen erabilerako ordenantzan aldaketak egin ditu udalak. "Aurreko legegaldian basoko txartela indarrean jarri genuen. Aurreneko urtean ez zen ezer ordaindu behar, baina bigarrenean 10 euro ordaindu behar ziren. Administrazio tramiteak eta herritarren ekarpenak baloratu dira eta baso txartela urtero berritzea agian gehiegi da. Eta erabaki dugu bost urtetik behin berritu beharko dela, 10 euro pagatuz". Orain arteko kartulinazko txartela autoan jartzeko pegatina bategatik aldatuko da; "pegatina askoz eroso da. Herritarrek kekatzen ziren txartela galdu, busti, galdu... egiten dela". Horren guztiaren berri emanez, etxeetara idatzia zabaldu zuen abendu bukaeran udalak.

2015 aldera hasitako proiektuari bulkada handia eman zion udalak joan den urtean eta herri argiteriaren zati handiaren LED argiak jarri zituen. "Herritarren ekarpenak egon ziren, euren kalean argi gutxi zegoela esanez edo. Guztiei erantzun zaie; batzuetan aldaketa eginez, besteetan beharrik ez dela ikusten esanez". 85.000 euro bideratu ditu udalak eta Nafarroako Gobernuaren % 60ko diru-laguntza izan du. "Inbertsioa bost urtetan edo amortizatuko da, faktura % 65 inguru jaitsiko baita".

### Frontoia

Euskalerrriari pilotalekua kanpotik itxuraldatuta dago azaroz geroztik. Harmailen gaineko teilatu txikia konpondu zuen aurrena udalak. Alkateak azaldu digunez, "frontoiko paretan muralak margotzeko eskaerak jasotzen hasi ginen. Artekaleko kideei proiektu txiki bat egiteko eskatu genien, zerbait homogeneoagoa, pixka bat txukunagoa gelditzeko. Eurek kolore progresioa egitea proposatu zuten. Eta



Teilatu txiki berritua eta fatxada koloretsua ditu orain frontoia.

eginen diren muralak kolore horiek errespetatzea". Bi lanak 40.000 euro inguruko inbertsioa izan ziren, foru administrazioaren laguntzarekin egina. Frontoiko ateak eta beste ere begiz jota ditu udalak.

Pilotaleku barruko argiterian ere aldaketak izan dira. Dirulaguntzarik jaso ez duenez, udalak bere egitasmoa bi zatitan banatu du. "Argindar gehien gastatzen zituzten argiak aldatu eta LEDak jarri dira. Argindarrarendako bi zirkuitu daude orain. Lehen argi guztiak piztu behar ziren. Orain beharren arabera pizten dira: pilota partida badago denak pizten dira, baina entrenamendurako aurrekoak, edo erdiak. Aukera gehiago ematen du". Marañoek jakinarazi duenez, aurtan gelditzen diren argiak LEDengatik ordezkatu dituzte.

Frontoiaren erabilera txarra egin zelako, zikinkeriagatik, aurreko neguan egun batzuetan frontoia itxita egon zen, behar bezala garbitzeko, bestela "udalak gutxieneko higieena ezin zuelako bermatu". Alkateak gogoratu du frontoia, pilota eskolak, ikastolak eta erabiltzen dutela.

"Horrelako zerbitzuak bermatu egin behar dira. Halakoetan ixten da eta zerbitzu horiek bermatzen dira. Beste guztirako itxita egoten da. Hala ere, beti dago aukera udaletxera etorri, giltza eskatu eta hartzeko. Horretarako problemarik ez dago". Marañoek azaldu duenez, azkenaldian erabilera ez da hain okerra izaten ari. "Bada denboraldi bat ez dena ixten. Zerbait egitea aurreikusiten da, baina momentuz ez dakigu nola kudeatu".

### Enneco

Nafarroa Bizirik fundazioak sustatuta, Enneco Haritzaren memoria egitasmoak Nafarroako historian murgiltzeko aukera emateko sortu zen. Etxarri Aranzko Udalak Basopokale eta Danbolintxulo artean lur sail bat horretarako esleitu zuen. Alkateak jakinarazi duenez, sustatzaileen aldetik "gutuna jaso genuen esleipen hori bertan behera uzteko eskatuz, printzipioz, proiektua bertan behera gelditu behar delako. Hala egin dugu abenduko bilkuran. Lur sail hori udalaren eskutara bueltatu da atzera ere".





# Enpresen lehiakortasuna handitzeko proiektua

Enpresak 4.0 industriaren erronkarako prestatzeko, 4.0 ready proiektuan, Europako zazpi eskualdek parte hartzen dute. Nafarroako lan taldea 13 erakundek osatzen dute eta haien artean dago Sakanako Garapen Agentzia

## SAKANA

Enpresa txiki eta ertainei (ETE) lehiakortasuna handitzen laguntzeko eta 4.0 industriaren erronkarako prestatzeko Europako zazpi eskualde elkartu dira, Nafarroa barne. Interreg Europe Programaren laugarren deialdian 4.0 ready proiektua onartu diete. 4.0 Ready proiektuaren bitartez, eta esperientziak trukatu, parte hartzen duten eskualdeen helburua da 4.0 industriak dakartzan aldaketa teknologikoei, kulturaleri eta antolamendukoei aurre egin nahi dieten ETEei laguntzeko eskualdeko tresnak hobetzea.

4.0 Ready proiektuak beste helburu tematiko batzuk ere jorratzen ditu, esaterako, ingurumena eta energia-eraginkortasuna, karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioa eta ikerketa eta garapena. 4.0 industria Europa osoan zehar hedatzen ari denez, estrategiak garapen digital integratuaren lerro berriarekin koherenteak izatea bermatu nahi dute eskualdeek. Gainera, ETEek horretan parte hartzea eta haiendako onuragarriak izatea lortu behar dute. ETEetan biltzen dira, besteak beste, ekintzaileak, jabeak, zuzendaritza-karguak edota maila guztietako langileak, industriako erronka berriak bere



Nafarroako lantaldeko kideen aurreneko bilera. NAFARROAKO GOBERNUA

gain hartzeko prestatuta egon behar baitute.

Ekonomia eta Enpresa Garapeneko Departamentuko Industria Sustatzeko Zerbitzuak Nafarroako proiektuko parte-hartzaileekin aurreneko bilera abenduaren 26an egin zuen. Han ziren Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterola Matxain eta Aintzane Iriberrri Berrostegeta. Guztiek elkarlanean ETEk 4.0 industriaren arloan dituzten premiak identifikatzeko lan eginen dute. Premia horien artean daude, besteak beste: langileak

beharrezko gaitasun digitaletan trebatzea, enpresen eraldaketa digitalerako estrategiak lantzen laguntzea, trebatzaile teknologikoak eskaintzea edota inbertsioak egiteko laguntzak ematea.

## Bazkideak

Italiako Toscana eskualdea buru dutela, elkarlanean honako eskualdeak ariko dira: Helsinki-Uusimaa Regional Council (Finlandia), Public Service of Wallonia (Belgika), Silesiako Gobernua (Polonia), Buchares, Ilfov Region (Errumania), FSEko Agentzia (Lituania) eta Nafarroa.



Hydro lantegia.

## CCOOk LABi Hydron "propaganda egitea" leporatu dio

Enpresa Batzordearekin sinatutakoan ilbeltza despeditu aurretik bilera erronda hastea aurreikusia zegoela dio

## IRURTZUN

Lan bera egiteagatik soldata bera kobratzea aldarrikatzeke zortzi egun greba egin zituzten Hydroko hainbat langilek LAB sindikatuak eta greba batzordeak deituta. Azaroan eta abendu hasieran izan zen hori. LABetik jakinarazi zuten, Hydroko zuzendaritzak lan-gatazkari irtenbidea emateko bide-orria proposatu zuen eta protestan zeudenen oniritzia jaso zuen.

Baina akordio hori "faltsua" dela nabarmendu dute CCOOko kideek. Sindikatutik azaldu dutenez, zuzendaritza eta enpresa batzordearen (CCOO 4, LAB 3 eta UGT 2) arteko bilera izan zen abenduaren 17an. "Guk galdetuta zuzendaritzak ukatu egin zuen LABekin akordiorik itxi zuenik. Zuzendaritzak jakinarazi zuen enpresa batzordearen gehiengoarekin, CCOOekin eta UGTekin, azaroaren 29an sinatu-

takoa beteko zuela. LABek ez zuen akordio hura sinatu, soilik lan planari dagokion atala sinatu zuen".

CCOOko kideek gaztigatu dutenez, "LABek sinatu ez zuen akordioaren bederatzigarren konpromisoan jasota dago aurtengo ilbeltzaren 31 baino lehen lan batzorde bat osatzea bilera-egutegia zehazteko. Bilera horietan, besteak beste, bidezkoa eta justua den ordainketa politika aztertuko da". Horregatik guztiagatik, CCOOko kideek LABekoei leporatu diete "beharrizkoa ez zen antzerkia egitea" eta "bere propaganda helburuetarako langileen talde txiki bat baliatzea. LABek sinatu ez zuen akordioan jasota dago egon daitezkeen arazoak konpontzeko bide-orria ilbeltzetik aurrera landuko dela". Eta ukatu egin du Hydron lan eskala bikoitza dagoenik.

## Aldakinek Euroeskualdeko dirulaguntza jaso du

Ideko Coop eta EESC ESTIA Compositadour enpresekin bat egin du Tsipirentsi 2 proiektua garatzeko

## ALTSASU

Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdeko Batzorde Exekutiboak 2019ko "Ezagutzaren Ekonomia" deialdiaren bidez zazpi proiektu berritzaile diruz lagunduko ditu. Sektore aeroes-

pazialean eta fabrikazio aurreratuan Tsipirentsi 2 proiektua aukeratu da. Egitasmo hori Elgoibarko Ideko S. Coop, Baionako EESC ESTIA Compositadour eta Altsasuko Aldakin Automata SL enpresena da.

Hirurek zelula robotikoaren garapenean lan egingen dute, material konposatuen mekanizazio-eragiketarako egiteko, eta mekanizazioan sortutako txirbilaren eta hautsaren %95 xurgatuko du gutxienez. Konpositea mekanizatzeke robot horren diseinua egitea ere sartzen da proiektuaren barruan. Baita osagaien fabrikazioa bera eta zelularen integrazioa eta baliozkotzea. Proiektuak 152.000 euroko aurrekontua du, eta Euroeskualdetik 64.950 euro jasoko dituzte.

## Urteko balantzea egiterakoan bakar bat gehiegi denean

Euskal Herrian lanean 44 pertsona hil ziren joan den urtean. Hildakoen kopuruak heren bat egin zuen behera, 2018an baino 24 pertsona gutxiago hil baitziren lanean. Lanean hil zirenetatik 13 nafarrak ziren. Zerrenda horretan, zoritxarrez, sakandar bat dago, 2019ko garagarriaren 25ean Arbizuko Lakber Mecanizados enpresan lan istripuan hil zena.

## Errepideetan, beltzetik txurira pasatu gara

Trafiko ezbeharrek 91 hildako utzi zituzten Euskal Herrian joan den urtean, 2018an baino lau gehiago. Haietatik 28 nafarrak ziren, aurreko urtean baino bost gutxiago. Zoritxarrezko zerrenda horretan ez da sakandarrik. 2018an eta 2017an hiruna sakandar hil ziren errepideetan izandako ezbeharretan. 2019an, ordea, ez zen hildakorik izan Sakanan.





Makinak hasi dira Bentalden lanean.

## Lanak direla eta abiadura muga jaitsi dute Urdiain parean

De Felipe eta Bentalde kaleetako sareak eta zoladura berritzeko lanak hasiak dira. Lanik nabarmenenak Bentalde kalean egiten ari dira NA-2410 errepideari paraleloa den kalean. Han pala lanean ari da eta kamioien joan etorria handia da. Horregatik, Altsasutik Urdiainera joaten diren gidariek Urdiainera iristean abiadura mugatu behar dute eta 20 km orduko eginez pasa behar dute herria. Bi kale horietako lanen aurrekontua 495.300 eurokoa da. Nafarroako Gobernuak 346.000 euroko dirulaguntza eman du eta beste 124.300 euro Sakanako Mankomunitateak, hari baitagokio uraren inguruko saareen lanak egitea. Lanak martxorako despedituko dituzte.

# Vicente Argomaniz plaza itxuraldatuko da

Parte-hartze aurrekontuen bidez plaza egokitzea erabaki dute olaztiarrek. Dagoen hesia eta arkitektura oztopoak kenduko dituzte. Bestetik, udalak Erburua kiroldegian dauden itajurak kentzera 20.000 euro bideratu ditu, lanak lehenbailehen hasiko dira

### OLATZAGUTIA

Olatzagutiko Udalak 30.000 euro bideratu zituen parte-hartze aurrekontuetarako joan den urteko aurrekontuetan. Olaztiarrek, lehenik, proposamenak egiteko aukera izan zuten azaroan, eta gero haietakoren bati botoa ematekoa abenduan. 16 urtetik gorako 89 olaztiarrek baliatu zuten aukera. Haietatik 25ek www.olazti.eus web orriaren bidez egin zuten eta gainontzekoek udaletxean edo kultur etxean botoa emanaz (boto bat baliogabea izan zen). Olatzagutiko Udaletik eskerrak eman dizkiete proposamenak egin eta haien alde botoa eman zutenei.

Proposamenen artean babes gehien Vicente Argomaniz plaza egokitzeke proposamenak jaso zituen, 18 boto (% 20,22). Zehazki plazako hesia eta arkitektura-oztopoak kendu nahi dira, plaza irisgarriagoa bihurtzeko. Roberto Martinez Mendia alkateak azaldu digunez, udal arkitektoa-



Vicente Argomaniz plaza itxuraldatzea erabaki dute olaztiarrek.

ri proposamena egiteko esanendio. "Aspaldi plaza eraldatzeko proposamena egon zen, baina ez zen egin". Gaur egun dagoen iturrira haurrak igotzen direla eta arriskua izan daitekeela ere gaztigatu digu.

### Gehiago

Estreinako parte-hartze aurrekontuetan, 2018an, argiteria publikoa eraginkorragoa bihurtzeko LED argiak jartzea erabaki zen. Horretara 20.000 euro bideratu ziren. Olatzagutian LED

argiak jartzeko bigarren faseak parte-hartze aurrekontuetan bigarren aukera izan da, 17 boto jaso ditu (% 19,10). Olatzagutia eta Ziordia lortzen dituen dermioko bidea asfaltatzeko proposamenaren alde 16 boto izan ziren (% 17,97). Udalak trenbide gaineko zubiaren ondoan asfaltoa gaizki zegoen zati bat konpondu eta bidearen beste zati bat asfaltatu du udazkenean. Alkateak azaldu digunez, "bide hori traktoreak ibiltzeko da. Pasiatzera joaten direnak kexu dira autoak eta motorrak ziztu bizian pasatzen direlako". Olaztiarren laugarren aukera izan zen Erburua kiroldegian ondoan autokarabandako eremua sortzea, 13 boto (% 14,60).

Olatzagutian dauden etxebizitza sozialak birgaitzearen alde 8 boto eman zituzten (% 8,98). Bestetik, proposamenen artean zegoen eskolara pasabideetan eta geletan energia eraginkortasuna hobetzeko inbertsioa egitea (kontsumo txikiko argiak, mugimendu sentsoreak eta termostatoak). 7 boto jaso zituen proposamen horrek (% 7,86). Hiruna boto (% 3,37) eskuratu zituzten igerilekuko aldagelak berritzea eta Sutegi gimnasioa eta bere aldagelak konpontzeko proposamenek. Elizaren inguruko zuhaiztia garbitu eta han parkea sortzearen alde bi boto izan ziren (% 2,24). Azkenik, padel pista estaltzeko boto bakar bat izan zen (% 1,12).

## Ekaiko Kontzejuan Telefonikak hots egiteko zain daude

Telefono kablea lurperatzeko eskaera egin dio kontzejuak enpresari, baina erantzunik ez du jaso

### EKAI

Ekaiko ur hornidura, euri uren eta ur beltzen sareak eta zoria berritu zirenean, Arakilgo Udalak eta Ekaiko Kontzejuak aukera baliatu zuten eta herri-argiteriako kableak, argindarrekoak eta telefono kableak lurperatzeko prest utzi zuten dena. Eta hala egin zen lanak despeditu eta hurrengo urteetan herri-argiteriako eta etxeetara argindarra eramaten duten kableekin. Baina telefonokoak falta dira. Ekaiko Kontzejuko presidente Francisco Javier Uharte Garrok esan



Ekaiko ikuspegia. ARTXIBOA

digunez, udaberri erdialdean Telefonikara hots egin zuela eskaera egiteko. "Teknikari bat ere bidali zuten eta esan zuen 3.000 edo 4.000 euroko balioa izanen lukeela". Orduetik Ekain ez dute telefono konpainiaren berririk.

Bitartean, Ekaiko Kontzejuak hala aginduta enpresa bat baso itxitura egin zuen joan den urte akaberran. Uhartekontzeju buruak zehaztu digunez, Satrustegiko mendikateko basoaren beheko aldean ari dira itxitura egiten, basoa eta herriaren eta soroen artean. Ordaintzeko Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko diru-funtseko 20.545 euroak bideratu dituzte. Uhartek gaineratu digunez, kontzejuan aztertu egingen dute herri-argiterian LED argiak jartzea sartu berri garen urte honetan.



## DUELA 25 URTE...



## Haur errusiarrei agur

Errusiako zortzi eta hamabi urte bitarteko 28 neska-mutil errusiarrek neguko oporraldia Irurtzunen eman zuten. Adin horretako seme-alabak zituzten Irurtzungo hainbat familiek hartu zituzten euren etxeetan. Gehienetan keinuekin komunikatu ziren elkar, elkarren hizkuntzak ez baitzekizkiten ez batzuk ez besteek. Ilbeltzaren 9an Errusiako bidea hartu zuten haurrek eta begiraleek.

# Presoen auziari konponbidea jartzeko

Horretarako garaia dela iritzita, Sarek biharko, 17:00etan, Bilboko La Casillatik abiatuta "Orain presoak" leloa duen manifestazioa antolatu du. Preso eta senideek jasaten duten eskubideen urraketa behin betiko bukatzea eskatuko dute

## SAKANA

Sare herritar plataformak urte hasierarako manifestazioa antolatu du Bilbon. Helburua bi-koitza da. Alde batetik, "urrunketa politika krudelaren aurrean" euskal presoen senideei milaka pertsonak babesa adieraz diezaietela. Bestetik, Espainiako Gobernu berriari argi uztea milaka herritarrek espetxe politika desberdina, salbuespen politikarik gabekoa nahi dutela. Politika aldaketa horrek bertako gehien-go sozial, politiko eta sindikalaren adostasuna duela gobernu berriari azaltzea.

Manifestazioa deitu duen Sare herritar plataformaren nahia da "Madrilgo politikariek hemen konpondu gabeko arazo bat denaren kontziente egin daitezela, eta elkarbizitzarako konponbidea ezin bestekoa dela ulertzea. Sanchez presidentek duela urte eta erdi espetxe politika aldatzeko asmoa iragarri zuen, ETaren desgitearen ostean zentzurik ez zuela eta. Hitz ederrak, ekin-tzak ordea ez horrenbeste". Salbuespen politika horren parte jo dituzte, besteak beste, presoak urrunduta izatea, presoen % 80 lehen graduan egotea (erregimen itxian), larri gaixo dauden presoak aske ez egotea edota baime-nik ez ematea.



Arbizun larunbateko manifestaziora joateko deialdia egin zuten. UTZITAKOA

## Akabera

Espainiako Gobernuak "pauso txikiak" eman dituela aitortuta ere, Sareko kideek "ausardia eta erabakitasa eskatzen diegu botere politiko eta judizialei, presoen salbuespen-erregimenari akabera emanen dion espetxe-politika bat aplikatzea eta etapa bati bukaera emateko eta presoak etxera itzultzeko bide-orria diseinatzeko aukera izatea ekarriko duen prozesu baten hasiera izan daitezen pauso txiki horiek". Sareko kideek adierazi dutenez, "bake justu eta

iraunkor bat nahi dugulako, konbentziturik presoen gaiak ez diela kalte egiten biktimizei".

Sarekoen iritziz "elkarbizitzarako ezinbestekoa dela bai biktimen, baita presoen ekarpen, hausnarketa eta parte hartzea". Horregatik, jakinarazi dutenez, "herri honek jasandako indarkerien biktima diren bi emakumezko ahotsa eman nahi izan diotela manifestazio akaberan irakurriko den testuari". Rosa Rodero, ETako biktima eta Asun Lasa, GALen biktima izanen dira azken mezua irakurriko dutenak.



Semeak atera berritan Gotzon Urritzola eta Javier Abad. @ALTSASUGURASOAK

## 2/7reneko poz txikia Altsasuko auzian

Iñaki eta Aratz 3. graduan daude. Beste lau 2. graduan sailkatu dituzte eta bat zain dago

## ALTSASU

Altsasuko auziagatik 588 egun preso egon ondoren Iñakik (3 urte eta erdiko zigorra) eta Aratzek (4 urte eta 2 hilabeteko zigorra) hirugarren gradua jaso zuten abenduaren 20an, 11:30 aldera. Kartzelako atean zain zituzten euren senide eta lagunak. Orditik biak astegunetan Zabalako espetxera lotara joaten dira eta asteburuak etxean pasatzen dituzte.

Altsasu Gurasoak taldeko kideek adierazi zuten, "Iñaki eta Aratz kalean daude, baina ez aske. Epaia betetzen ari dira. Jakina, hirugarren graduak gure sufrimendua arintzen du, baina ez du bizi duten injustizia egoera aldatzen. Gogoratu gainontzeko semeek kartzelan segituko dutela". Guztiak kalean ikusi arte borrokan segituko dutela gatzigatu dute gurasoek. Bitartean Iñaki eta Aratz, pixkanaka

euren bizitza berregiten hasi dira. Herrira bueltatu zirenean ez zen harrera berezirik izan.

Adur eta Jokin (1153 egun preso hirurak), Jon Ander eta Julen (619 egun preso biak) bigarren graduan sailkatu zituztela jakin zuten joan den astean. Oihanen (1153 egun preso) deiaren zain daude gurasoak, bere kasuan ere hala den jakiteko. Hori horrela, laurak kartzelatik egun batzuk ateratzeko baimenak eskatzeko aukera dute. Baimena ematea beste kontu bat da. Eta kalean pasatzeko baimen batzuk egite-rakoan hirugarren gradua eskatzeko aukera izanen dute. Zortzigarren auzipetu Ainara kalean dago, urte eta erdiko zigorra jaso baitzuen.

Bitartean, auzipetuen abokatuak Espainiako Auzitegi Nazionalan eskaerak eginak dituzte eta epaitegiak haiek onartuko dituen edo ez erabaki zain daude.

## "Gaixotasun larri eta sendaezina espetxearekin ez da bateragarria"

Hala gatzigatu zuten Orain Jon Gurutz lan-taldeko kideek abenduaren 27an egindako manifestazioan

## ETXARRI ARANATZ

Lannemezango espetxean (300 km-tara) preso eta larriki gaixo dagoen Jon Gurutz Maiza Artolaren askatasuna aldarrikatzeko manifestazioa egin zen Etxarri Aranatzen abenduaren 27an.

Orain Jon Gurutz lan-taldeko kideek adierazi zuten, "konponbidean pausoak emateak euskal presoen korapiloa askatzea ekarri behar du. Eta bide horretan gaixotasun sendaezinak dituzten euskal presoak etxeratzea

urgentziazkoa da". Larriki preso dauden 21 presoak kalean egon behar dutela aldarrikatu zuten Etxarri Aranatzen. "Pertsona horien osasunarekin eta sufrimenduari bestelako kalkuluak egitea ankerkeria eta mendeku hutsa besterik ez dira".

"Konponbidean, giza eskubideen errespetuan eta elkarbizitzan pausoak emateko guztiok batera bulkatu behar dugu". Bide horretan, larunbatean, 17:00etan, Bilbon eginen den manifestazioan parte hartzea deitu zuten.



Gaixo preso dauden presoen askatasuna eskatu zuten. @SAREETXARRI





Bidaia Altsasuko tren geltokian trena hartzeko prest. ARTXIBOA

# Tren geltokiko txarteldegia itxita

Gaur egun trenek soilik Uharte Arakilgo, Etxarri Aranazko eta Altsasuko tren geltokian eta azken horren geralekuan besterik ez dira gelditzen. Bakar batean ere ez dago txarteldegirik

## ALTSASU

Renfek Altsasuko tren geltokiko txarteldegia itxi zuen ilbeltzaren leian. Renfek bi irizpide izan ditu kontuan txarteldegia ixteko: egunero batz bestea ehun bidaiari baino gutxiago eta urtean 250.000 euro baino fakturazio txikiagoa izatea. Altsasun bidaiarien batz bestekoa 27koa da. Erabaki horrekin Sakanan gelditzen zen tren txarteldegi bakarra itxi da, bai Uharte Arakilen bai Etxarri Aranazten urteak baitira txarteldegia itxi zituztela. Bietako batean ere ez dago komuna publikorik eta bidaiariek estalopeetan itxaron behar dute trena. Azken neurri horrekin, Sakanako tren geltokietan edo Altsasuko geralekuan trena hartu nahi dutenek [www.renfe.com](http://www.renfe.com) web orrian, 912 320 320 telefonoan, Renfe Ticket mugikorrendako aplikazioaren bidez, Irurtzango eta Altsasuko Correos bulegoetan, bidaiaria agentzian edo trenean bertan erosi behar dituzte txartelak.

## Alkateak

Gauzak horrela, Castejongo David Alvarez, Tafallako Jesus Arrizubieta eta Altsasuko Javier Olo Martinez alkateak Iruñean elkartziren joan den ostiralean. Hirurek ere euren tren geltokietako txarteldegia ixtearen kontra azaldu dira: "ez ditugu partekatzen ez arrazoiak ezta ondorioak". Azken horien artean honakoak zerrendatu dituzte: kalitatezko zerbitzua ematea, enplegua mantentzea, ohiko trenaren defentsa eta eskualdeen despopulazioan zerbitzu faltak duen eragina. Eta erabaki zuten Nafarroako Gobernuak presidente Maria Chiviterekin eta Lurralde Kohesiorako kontseilari Carlos Zirizari premiazko bilera eskatzea. Aldi berean, Renferi hiru geltokietako txarteldegia berehala zabaltzeko eskatu zioten.

Enpleguaren mantentzea arriskuan jarri eta despopulazioa errazten duten neurrien kontra egin zuten. Renferen eta Adifen

erabakiaren berri gutun bidez urtea bukatu baino egun gutxi batzuk lehenago jaso zutela jakinarazi zuten alkateek, "elkarrizketarako batere tarterik eskaini gabe, txarteldegia ilbeltzaren letik geldi baitaude. Aldez aurretik pentsatutako erabakia izan da, edozein erantzun saihesteko". Zirizak azaldu duenez, Altsasun eta Tafallan ez da lanposturik galduko, txarteldegian zeuden langileen egitekoetako bat zelako hori eta bestelakoak badituztelako.

## Erreakzio gehiago

Erabakiari aurreneko erantzuna kalean Castejonen eman zioten igande eguerdian. 400 pertsonak baino gehiagok tren geltokian

**TXARTELDEGIAK IXTEKO PROZESUA ETETEKO KONPROMISOA HARTU DU PSOEK TERUELEKIN**

egindako kontzentrazioan parte hartu zuten. Jakinarazi zuten, txarteldegien itxieraren kontrako sinadura bilketa egingen dute. Castejongo txarteldegia azkenik ez da itxiko 141 bidaiarik erabiltzen dutelako batz bestea.

Geroa Baik Nafarroako Parlamentuan mozioa aurkeztu du. Haren bidez Nafarroako Gobernuari eskatu dio kaltetutako hiru udalekin batera lan egin dezala, elkarrekin konponbideak bilatu eta udalen aldarrikapenak laguntzeko eskatu dio.

EH Bilduk tren sozialaren eta herri bizien aldeko jarrera azaldu zuen. Koalizioak herritar guztien zerbitzura egonen diren azpiegiturak aldarrikatu ditu.

Izquierda-Ezkerrak aldirietako eta distantzia ertaineko tren zerbitzuetarako inbertsioak aldarrikatu ditu. Koalizioak kideen iritziz, "horrelako neurriek ibilgailu pribatuaren erabilera sustatzen dute, ingurumen eta ekonomia kalteak dakartzana".

CCOrendako txarteldegia ixteko neurria "ohiko tren zerbitzua desegiteko aspaldidanik gobernu guztiek inpairatzen ari garen politikaren zati da, abiadura handiko trenaren (AHT) alde egiten da apustu soilik". Tren enpresetan langileria falta dagoela nabarmendu du CCOO eta Renfeko eta Adifeko lantaldeak handitzeko eta gaztetzeko deia egin du.

Sustrai Erakuntza fundazioak Nafarroan bi gertaera batu direla gaztigatu du: "Alde batetik, AHTren obrek abiadura handian egiten dute aurrera, ekonomia gastu eta ekologia suntsipen handia eraginez. Eta, bestetik, erabat iraunkorra den garraio-bide bakarrari lotutako zerbitzuen desagerpena eman da".

Sustrai fundazioko kideen iritziz, "Nafarroan daukagun trena, desegiten ari dena, berotegi-efektuko gasik isurtzen ez duen eta ekosistemetan txikizidio handirik eragiten ez duen pertsonen eta salgaien garraiorako irtenbide bideragarri bakarra da".

Bestalde, Altsasu eta Miranda arteko tren sozialaren aldeko sinadurak bilduko dituzte. AHTren kontrako plataformek Araban "kalitatezko trenbide zerbitzua" lortzeko helburuz sustatu dute. Egungo korridorea erabiltzea, trenen maiztasuna areagotzea, geltokien sarea hobetzea eta landa-guneak hiriarekin lotzea proposatzen dute.



Sahiesbideko borobil bat. ARTXIBOA

## Gobernuaren LED argiak besterik ez dira falta

Irurtzunerako espaloiko argiak jarri ondoren, gobernuaren zatia besterik ez da falta

## IZURDIAGA

Herri-argiteria LED argiekin duten herriak gero eta gehiago dira. Horien artean dago Izurdiaga ere. Irurtzunerako oinez segurtasunez joateko espaloia egiteko lanak despeditu berri dira. Han daude Izurdiagan jarri diren azken argi puntuak. Eta horiek ere LED argiak dituzte. Horrela, Izurdiagako Kontzejuak argindar kontsumoa murriztu eta energia eraginkortasuna hobetu du. Horretara, aurtan 11.401,60 euro bideratu ditu, haiekin Nafarroako Gobernuak 6.840,96 jarri ditu eta gainontzeko kontzejuak.

Luis Beraza Ameztegi Izurdiagako kontzeju buruak azaldu digunez, San Juan auzoko zati bat besterik ez da falta LED argiak jartzeko. Zati horren ardura Nafarroako Gobernuarena da, Izurdiagako saihesbideko argitape-nari dagokion zatia da, hain zuzen ere.

2016an zabalduko saihesbideak bi borobil ditu. Gobernuak nahi zuen kontzejuak hango argien gastua ordaintzea. Baina kontzejuak uko egin zion. Adostu zuten kontzejuak gastu handiena duen Donibane eta San Migel auzoetako faktura pagatuko zuela eta Nafarroako Gobernuak Geltoki auzokoa.



Nafarroako Parlamentu parera eraman dituzte aldarrikapenak. UTZITAKOIA

## "0 eta 3 urte arteko haur eskoletako politika kaka bat da!"

0 eta 3 urteko haur eskolen aldeko Nafarroako plataforma mobilizazioak egiten ari da

### SAKANA

Abenduaren 23an eta atzo Nafarroako Parlamentuaren parean kontzentrazioak egin zituzten haur eskolen politika "kaka bat" dela salatzen. Gehiegizkotzat jotzen dituzten ratioak jaitea eta soldatak igotzea aldarrikatuko dute. Plataformako kide Eider Gardek azaldu digunez, 0-3 zikloko ikastetxeek egiturarik ez dutela salatu du: "haur eskola batzuk Hezkuntza Departamentuak finantzatzen ditu, besteak, berriz, Gizarte Politiketako Departamentuak. Nahiz eta 2007tik dekretu bat dugun 0-3a hezkuntza dela". Horrek "opakotasuna" edo zenbateko aurrekontua bideratzen den jakitea ezinezko bihurtzen du plataformakoendako. Eta Gardek gogorarazi du haur eskolak udalena direla. Tokiko administrazioak Nafarroako Gobernutik jasotzen duten finantziarioekin lan egiten dute. Nahiz eta udalek soldatak osatu, esaterako, antzinatasuna pagatuz. Gastu bat bere gain hartuz.


Gardek jakinarazi digunez, "aurreko legegintzaldi hasieran Geroa Baik 0-3aren diagnosis egin zuen. Zenbat zentro mota dauden identifikatu zuten edota langileak jasotzen dituzten soldatak (batetik bestera desberdinak). 0-3 zikloaren opakotasunak zenbat balioko zuen, horren estimazioa ere egin zuen Geroa Baik. Baina informazio hori ez dute publiko egiten, eskatu eta eskatu ari bagara ere". Gobernu aldaketarekin PSNk 0-3 zikloa-

rekiko zein jarrera izanen duen ez dakite. "Madrilen doakotasuna aipatzen ari dira. Baina PSNren aldetik ez dugu inolako diagnosirik". Bitartean euren ahotsa entzunarazteko Parlamentu parean 15ean behin kontzentrazioak egingen dituzte. "Astero egin behar badira, egingen dira. Eta, bukatzeko, greba egin behar bada, egingen dugu".

### Doakotasuna

Haur eskoletako langileak euren eta haurren eskubideak aldarrikatzen ari dira mobilizazio horiekin. Plataformako kideen iritziz, "oso larria da Nafarroan Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa, publikoa izanda, doakoa ez izatea, garestia izatea, profesionalek antzinatasuna ez dugu kobratzen, BPGa gaurkotu gabe dugu, lan egonkortasunik gabe, ratio jasangaitzak eta arriskuetsuekin egunero bizi behar izateak. Arduradun politikoez ziklo horrekiko ezartzen duten indarkeria salatzen jarraituko dugu".

Aldi berean, 0 eta 3 urteko haur eskolen aldeko Nafarroako plataformako kideek nabarmendu dute joan den urtean Nafarroako itunpeko irakaskuntzak 133.679.000 euro jaso zituen bitartean 0-3 publikoak 9.576.000 zituela. "Kontraesan horri bukaera eman behar diote politikariek, haur hezkuntzako lehenengo ziklo publiko duinak behar duen finantziarioa babestu behar dute pribatuetara dirua bideratu baino lehen".



JUAN PEDRO HIGUERO

## Baloia eta jatekoaren bueltan

Iturmendiko frontoiak Ongi Etorri futbol topaketa solidarioa hartu zuen abenduaren 23an. Iturmendin bertan bizi diren adingabeak eta Sakanako neska-mutil gazteak elkartu zituen hitzorduak. 16 eta 18 urte bitarteko 61 gazte izan ziren, hainbat taldetan nahasi

eta elkarren kontra areto futbolean jokatu zutenak. Akaberran parte-hartzaile guztiek Iturmendin bizi diren adingabeek egindako giltzari bana jaso zuten opari. Horretaz aparte, indarrak hartzeko, haiek prestatutako auzatea dastatu zuten.

## Basaluzeko dorrea zaharberrituta dago

Kultura Departamentuak eta Altsasuko Udalak haren kudeaketa eta erabilera aztertuko dute. Departamentuak 250.527,53 euroko inbertsioa egin du. Udalak bere kudeaketa eta erabilera zehaztu behar ditu orain

### ALTSASU

Telegrafia optikoko dorreari ondasun inbertariatutako izendapena eman zion Nafarroako Gobernuak 2017an. Altsasuko bargan dagoen Basaluzeko dorrea zaharberritzeko lanak garagarriaren erdialdean hasi ziren eta azaro akaberran despeditu ziren. Obra proiektua eta zuzendaritza Ondare Historikoaren Zerbitzuko arkitektoa den Jose Luis Frantsez Apezetxeak egin zituen eta zaharberritzea Construcciones Leache enpresak egin du.

Lanak despedituta, erabilera posibleak aztertzeko Altsasuko Udalak Altsasuko Mendigoizaleak taldearekin elkartuko da. Gainera, udalak eta Kultura Departamentuak kudeaketa eta erabilera zehazteko hitzarmena sinatuko dute. Bargan dagoen eraikinari buruzko argibideak ematen dituen panela(k) jartzea da aurreikusten den asmoetako bat. Dorreko teilatua ez da seinaleen bidezko komunikazio-



Dorrea 1846-10-02an mustu zuten.

dermioan) zeuden, eta hondatuta daude.

### ETB 1

Euskal Telebistako euskarazko kanala 1982ko abenduaren 31n hasi zen emititzen. Euskarazko hedabidea Nafarroan ikusteko makina bat herritar mobilizatu ziren. Ezaguna da Aralarko santutegiko kaperau Inocencio Aierbek Iruñerriko Paz de Ziganda ikastolako gurasoei tokia utzi ziela errepikagailua santutegian jarri eta seinalea Iruñerri bialditzeko.

Sakanan, Altsasun, ETB1eko seinalea hartzeko herritar ekin-tzaileek bargara begiratu zuten: Basaluzeko dorrean jarri nahi izan zuten Euskal Telebistako igorgailua. Baina udalaren ezeztak eta argindarra haraino eraman behar beste alternatiba bat bilatzera behartu zituen. Horrela sortu zen Urdaingo ur biltegiaren ondoan igorgailua jartzeko aukera.

sistema jarriko, Madril eta Irun lotzen zuen telegrafia optikoko lineako Nafarroako hiru dorretatik zutik dagoen bakarra baita Basaluzekoa. Besteak Ziordian (Itur bedeinkatutik mendebaldera) eta Altsasun (Eguberako



# Sakandarrak bikain Binakakoan

**PILOTA** Aurreneko itzulia despedituta, sailkapenaren goi partean daude sakandarrak. Bihar Jakak-Zabaletak Irribarria-Rezusta izango dituzte aurkari, eta Ezkurdia-Martija Altuna ordezkatu duen Elezkanoren eta Ladis Galarzaren kontra ariko dira

Binakako Txapelketako lehen ligaxkako aurreneko itzulia bukatuta, sailkapeneko goialdean daude pilotari sakandarrak. Erik Jaka eta Jose Zabaleta dira sailkapeneko liderrak, jokatutako 7 partidetatik 6 irabazita, 6 punturekin. Eta Ezkurdia eta Martija hirugarren postuan daude, 4 punturekin. Azken jardunaldietan garaipenaren bidean daude gure pilotariak eta finalerdietan egoteko hautagai sendoak direla erakusten ari dira.

**Jaka eta Zabaleta, geldiezinak** Igandean, Tolosako Beotibarren, Jakak eta Zabaletak Artola eta Imaz izan zituzten aurkari. Zabaleta bikain aritu zen atzeko koadroetan; bere kolpearekin partida dominatu zuen, pilota bikain mugitu zuen, pilotakada luzeak eta motzak tartekatuz, eta zituen aukerak bikain probestu zituen Erik Jakak. Artola eta Imaz baino askoz gehiago izan ziren eta merezitako garai-



Jakak eta Zabaletak Irribarria eta Rezusta dituzte aurkari bihar. JUAN CARLOS RUIZ, FOKU

pena lortu zuten, 22 eta 10. Jaka eta Zabaleta txapelketako onenak dira, momentuz. Soilik partida bat galdu dute, eta hura 21 tantora iritsita. Horrela jarraituz gero, txapela lortzeko hautagai oso serioak dira. Zabaleta seku-

lako kolpearekin dago, eta Jaka min handia egiten ari da.

**Ezkurdia eta Martija, goranzka** Astelehenean sekulako erakustaldia egin zuten Ezkurdiak eta Martijak Eibarren Aimar Olai-

zolaren eta Mikel Urrutikoetxearen kontra. Hasieran parez pare aritu ziren bi bikoak, baina Ezkurdiak batuta hartu zuen, partidaren erritmoa igo zuen – soilik Martijak erantzun ahal izan zion arbizuarrak ezarritako martxari– eta hor hasi zen biko sakandarraren festa. Azkenean, goitik behera gailendu ziren Ezkurdia eta Martija, denetarikoa tantoak eginez: boleaz, pilota txokoan utzita, bi paretaz... Lan ikusgarria egin zuen Ezkurdiak, Martijak atzeko koadroetan ederki biribildu zuena. Gorako bidean daude, eta lanak oso ongi egiten ari dira biak.

## 8. jardunaldiak dakarrena

Gaur hasierako ligaxkako bigarren itzuliari ekingo diote pilotariak. Gaur, ostiralean, Getarian, Artolak eta Imazek Laso eta Albisu izanen dituzte arerio (22:00, ETB1). Larunbatean, Etxebarrin, Jaka eta Zabaleta Irribarriaren eta Rezustaren kontra ariko dira (17:45). Jaka eta Zabaleta dira faboritoak, baina berea eman ez duten Irribarriarekin eta Rezustarekin kontu handia izan behar dute. Egun berean, Labriten, Ezkurdiak eta Martijak Altuna ordezkatu duen Elezkanoren eta Ladis Galarza hartuko dituzte (17:45, ETB1). Aspek atzo jakinarazi zuenez, Altunak ez du jokatuko ezker eskumuturra minduta duelako, eta haren tokia Elezkanok hartuko du. Bukatzeko, igandean, Zumaian, Olaizolaren

eta Urrutikoetxearen kontra ariko dira Bengoetxea eta Mariezurrena (17:00, ETB1).

**Labriteko "puntu garrantzitsua"** Asteazkenean Ezkurdiak, Martijak, Altunak eta Ladis Galarzak biharko partidako materiala aukeratu zuten. Altunak oraindik baja hartzeko erabakia ez zuen hartu. Bi bikoak ados zeuden Labriten jokoa dagoen puntua "oso garrantzitsua" dela esatean. "Garaipena lortzea garrantzitsua da. Guk 5 puntu eta eurek 4 izanda, aurrerapauso handia litzateke guretako seigarren puntua lortzea. Partida gogorra izango da, Ezkurdia erabateko pilotaria delako eta Martija, atzean, bizi-tza-asegurua delako" adierazi zuen Altunak.

Joseba Ezkurdiak ere "oso garrantzitsua" jo zuen partida. "Irabazten badugu Altuna eta Ladis berdinduko ditugu. Partida zaila izango da, beraiek joko oso onarekin daudelako. Gure helburua da lehen fasean bezala jarraitzea, partida guztietan lehiakorrak izatea. Finalerdietan egoteko borrokan egon beharra dugu, partidaz-partida" nabarmendu zuen.

**MOMENTUZ ZABAETA ETA JAKA DIRA TXAPELKETAKO ONENAK, ETA LIDER IZATEN SEGI NAHI DUTE**



MOVISTAR TEAM

## Regino Arellano Sayasi agur

**TXIRRINDULARITZA** Asteartean zendu zen Regino Arellano Sayas (1939), Reynolds-en harreman publikoen arduraduna izan zena (1980-1983), eta ondoren Paterninan aritu zena. Movistar Team-k "taldekide eta adiskide mina" izandakoa agurtu zuen, eta senitartekoei doluminak eman zizkien. Asteazkenean jendetza bildu zen haren aldeko elizkizunean.



UTZITAKOA

## Aaron Arbizu Billabonan txapeldun

**PILOTA** Abenduaren 29an Anton Pebet Memorialeko finalak jokatu ziren Billabonan. Aaron Arbizu etxarriarrak Billabonako Eneko Maizekin osatu zuen bikotea, Espinalen eta Alduntzinen kontra aritzeko. Tentsio handiko partida izan zen; Espinal eta Alduntzinen

aurreratu ziren, baina 16. tantoan arerioak berdintzea, markagailuari buelta ematea eta 18 eta 22 irabaztea lortu zuten Aaron Arbizuk eta Eneko Maizek. Aaron Arbizu etxarriarra txapelketako pilotaririk hoberena izendatu zuten.





Sakanako Pala Txapelketako finalistak, Irati Igoa erdian dela. UTZITAKOA

# Sakanako pala txapela Irati Igoarendako

**PALA** Abenduaren 28an Gure Pilota XV. Sakanako Nesken Pala Txapelketako finalak jokatu ziren Etxarri Aranatzen, eta elite mailan Irati Igoa etxarriarra eta Uxue Murillo gailendu ziren. Promozioan Ekhiñe Balerdik eta Paula Gorostiagak irabazi zuten

**Maidar Betelu** ETXARRI ARANATZ  
Abenduaren 28an jokatu ziren Sakanako Mankomunitateak eta Etxarri Aranazko Gure Pilota elkarteak antolatutako XV. Gure Pilota Sakanako Nesken Pala Torneoko finalak, beteta zegoen Etxarriko frontoian.

Finalean pilotari guztiek be-soan zinta beltza zutela jokatu zuten, auto istripuz zendutako Pablo Azcona palista, eta trinketeko pilotari gaztearen omenez. Kategoria txikietan oso borrokatuak izan ziren finalak, eta baita helduen promozio mailakoa

ere. Olatz Zulaika-Narrea Otxoa eta Ekhiñe Balerdi-Paula Gorostiagaren arteko finalean azken unera arte ez zegoen jakiterik nor gailenduko zen. Emozio handia tarteko, Balerdik eta Gorostiagak lortu zuten txapela, 3 tanto eskasengatik (27 eta 30).

Elite mailako finalean Amaia Irazustabarrenaren eta Leire Azanzaren kontra aritu ziren Uxue Murillo eta Irati Igoa etxarriarra. Murillok eta Igoak, bikain jokatuz alde gehiagoko garaipena lortu zuten, 20 eta 30.

Bukaeran, palistak eta antolatzaileak, Gure Pilota elkarteke Miguel Aristorena arduradun, monitorea eta antolatzaile handia tartean, bazkari ederrean bildu ziren Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen.

## Irati Igoak ederki ospatu zuten Sakanako txapela

Irati Igoa Sesmak finala "oso ongi" joan zela azaldu du. "Hasieratik partidaren sartu ginen, eta gero eroso ibili ginen. Partida gogorra izango zela espero nuen, eta hala izan zen, baina tantoak egiten joan ahala ohartu ginen geroz eta gertuago gundela garaipenetik. 20-8 jarri ginen Irazustabarrenaren eta Azanzaren aurretik, eta arriskatzeko aukera genuen. Egia esan, ez nuen 10 tantoren diferentzia espero, baina 20 eta 30 irabazi genuen eta oso pozik nago".

Ospakizunak ongi joan ziren. "Bazkari ederra egin eta gero, Hatortxu Rocken bikain ospatu genuen. Txapela, kopa eta Decathlonon 125 euroko deskontua irabazi nuen, sari polita. Aurretik Sakanako beste 6 txapel ditut, hainbat kategoritan, baina ia kanporatu egin ninduten eta due-la bi urte txapel dunorde izan nin-

## Finalak

### Promozioa

Olatz Zulaika-Narrea Otxoa 27 / Ekhiñe Balerdi-Paula Gorostiaga 30

### Eliteak

Irazustabarrena-Leire Azanza 20 / Uxue Murillo-Irati Igoa 30

### Gaztetxoak

Mireia-Iraia 18 / Arhane-Nahia 16  
Izadi-Aitzara 14 / Aizeti-Lexuri 22  
Uxue-Maialen 25 / Haizea-Elene 16  
June A.-Julene 25 / Olaia-Irati 13

tzen; aurtan beraz, irabazi izanak izugarri poztu nau" aipatu digu. Orain, palan atsedenditoxoa hartuko du. "Ondoren Nafarroako Trinkete Txapelketan hasiko gara eta Nafarroako Pala Txapelketako 2. faseari ekingo diogu".

Bitartean, futboleko buru berri jarraitzen du Igoak, Espainiako Emakumezkoen Futbol Ligako 1. Maila Nazionaleko 2. multzoan, Mulier taldean. "Futbolarekin topera nabil. Sailkapenean 10.ak gara eta bihar partida zaila dugu Oiarzunen kontra. Ea zer moduz hasten den bigarren buelta" aitortu digu.

## "JOAN ZEN URTEAN KANPORATU EGIN NINDUTEN ETA AURTEN IRABAZTEAK IZUGARRI POZTU NAU"

## Haimar Leone gaztea Sakanako Xake Txapelketako txapelduna

**XAKEA** Mankomunitateak Ziordiko elkartearen antolatutako txapelketan 33 xakelarik hartu zuten parte

Sakanako Mankomunitateak Sakanako Zaldi Beltza taldearen, Ziordiko Udalararen eta Ziordiko Errekakartea elkartearen laguntzarekin abenduaren 21ean antolatutako Sakanako XX. Xake Txapelketan 33 xakelarik hartu zuten parte. Txapelketa, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izan zen 1.900 ELO puntutik behera. Ziordiko elkartearen goizean hasi eta arratsalderaino luzatu ziren partidak, txapelketa 20 minutuko 8 partidara jokatu baitzen, bazkaltzeko atsedendia hartzeko tartea izan ezik.

Txapelduna 12 urte dituen Haimar Leone gaztea izan zen, Andres Senpere eta Pablo Mugikaren aurretik. Emakumezkoetan Saiola Torresek irabazi zuen, Arantxa Arratibelen eta Maria Rodriguezen aurretik. 14 urtez azpikoetan Ekain Galarzak irabazi zuen, Unax Senosiainen aurretik, eta emakumezkoetan Eileen Alvarerek. Bukatzeko, sakandarren artean Juan Andres Cerro altasuarra izan zen onena.

Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak azaldu zuenez, "20 urte daramatzagu Sakanako Xake



Ziordiko elkartearen jokatu zen txapelketa, primerako giroan. UTZITAKOA

Txapelketa antolatzen. Urtero bezala, aurtan ere giro polita sortu zen partaideen artean, eta euren maila paretsua zenez, bukaerara arte ez zen txapelketa erabaki eta emozio handia izan zen. Haimar Leone izan zen ira-

bazlea, 12 urterekin, heldu guztiak mendean hartu eta gero". Ziordiko udalari eta elkarteari eskerrikeri beroenak eman zizkien, "euren eskuzabaltasunarengatik eta beraien etxean harrera ezin hobe egiteagatik".

## MENDIA 2019ko mendi irteeren proiektzioa gaur Irurtzunen

Irurtzango Iratxo elkartearen iazko balantzea egiteko parada izanen da. Izan ere 2019ko mendi irteeren eta Sakanako Ibilaldien inguruko mendi proiektzioa hartuko du Iratxok gaur, ostirala, 19:00etan.

Horrela, iazko mendi irteera guztien argazki eta irudi ikusgarriekin atzera egiteko aukera izango dute mendizaleek, 2019ko balantzea egiteko. Mendi proiektzioaren ondoren, aurtengo mendi egutegia jasoko dute Iratxora hurbiltzen direnek, lagun artean auzateaz gozatzen duten bitartean.

Iratxo elkarteak mendi irteerak antolatzen ditu, eta, horretaz gain, Sakanako Mendizaleen irteeretan hartzen du parte.





Asteartean Lacturalera bisita egin zuten Osasuna Magna Xotakoek. XOTA

## Garaipenarekin hasi eta bukatu du urtea Osasuna Magnak

**ARETO FUTBOLA** Palma Futsal eta Cordoba mendean hartu eta gero, bihar Burela du aurkari talde berdeak

Ongi ekin dio urteari Osasuna Magna Xotak. Urteko azken partidari Imanol Arregiren taldeak 3 eta 1 irabazi zion Palma Futsal taldeari, eta ostiralean jokatu-tako urteko lehen partidari ere gauzak ezin hobe egin zituen talde berdeak. Cordoba Futsal taldeari 5 eta 3 irabazi zioten Anaitasunaren jokatu-tako partidari.

Hala ere, Cordobaren kontra jokatu-tako partida ez zen erraza izan. Berdeen defentsa akats bati esker Cordoba aurreratu zen markagailuan; Osasuna Magnari kostatu egin zitzaion Cordobaren presioa gainditzea, baina, azkenean, Mancusok bana berdintzea lortu zuen. Eta 40 segundo eskasera Dani Saldisek 1 eta 2 aurreratu zuen talde berdea, jaurtiketa bikoitz batekin. Alaitasunak gutxi iraun zuen, kontraeraso batean bina berdindu baitzuen Cordobak, baina atsedenaldia baino lehen Araçak gola sartu eta 3 eta 2 irabazten zihozela joan ziren berdeak aldageletara. Bigarren zatian hiruna berdindu zuen Cordobak eta andaluziarrek ederki estutu zuten talde berdea. Baina Rafa Usinek corner baten ondoren laugarren gola sartu zuen eta Saldisek bosgarrena egin zuen kontraeraso bat probestuz. 5 eta 3 irabazi zuten nafarrek, ederki sufrituta.

Imanol Arregik azaldu zuenez, partida "oso gogorra" izan zen. "Kontrako gola jaso eta gero taldeak ongi erantzuten jakin izan du, eta azkenean bi goleko errenta defendatzen jakin izan dugu. Garaipen garrantzitsua lortu

dugu, sailkapenean goian egotea ahalbideratzen diguna, play-off postuetan. Izan ere, hemendik aurrera lehen zortzi postuetan egotea da erronka, titulua erabakitzeko play-offak jokatu ahal izateko" nabarmendu zuen Irurtzongo teknikariak.

### Hurrena, Burela

Lehen mailako liderra Movistar Inter da (38 puntu) eta Osasuna Magna Xota 5. da (31 puntu). Bihar, larunbata, sailkapenean 16. eta azkena den Pescados Ruben Burelaren kontra ariko da Osasuna Magna Galizia (18:30). Imanol Arregik ez du Bynho deitu, ondoezik dagoelako. Aldiz, teknikari irurtzundarrak Ion Cerviño eta Iñigo Fernandez juniorrak eramango ditu biharko partidara.

### Errege Kopan Santa Coloma aurkari

Asteartean Errege Kopako final zortzirenetako partida jokatu du Osasuna Magna Xotak Industrias Santa Colomaren kontra, Badalonan.

### Kopako lehen arerioa, Barça

Espainiako Kopa martxoaren 5etik 8ra jokatu da Malagan. Zozketa egin eta gero, Osasuna Magna Xotaren Kopako final laurdenetako arerioa Barça izango da, martxoaren 6an jokatu den partidari. Arerio oso latza egokitu zaio talde berdeari, baina dena ematera aterako dira Imanolen mutilak. Kopako sarrierak aurki jarriko dira salgai.

# Izagirre, Arrieta, Uncilla, Imaz eta Tadeo podiumean

**ZIKLO-KROSA** Gorka Izagirre Euskadiko txapelduna eta Ormaiztegiko irabazlea izan da eta Igor Arrieta, Mikel Uncilla eta Nahia Imaz Nafarroako txapeldunak. Asteburu honetan Espainiako Ziklo-kros Txapelketak jokatu dira Pontevedran

Egunotan makina bat ziklo-kros lasterketa eta txapelketa jokatu dira eta primerako maila eman dute gure txirrindulariek.

### Nafarroako Txapelketan Arrieta, Uncilla eta Imaz txapeldunak

Abenduaren 21ean Iruñeko Ziklo-Krosa jokatu zen Lezkairun, Nafarroako Txapelketa. Maila nagusian Ermuko taldeko Aitor Hernandez gailendu zitzaion Astana taldeko Gorka Izagirreri, nagusitasun handiz (58:06). Minutu bat eta 35 segundo ateratu zizkion.

Junior mailan Igor Arrieta uhartearrak irabazi zuen, aparteko arazorik gabe (45:54), bigarren sailkatutako El Caserioko Adrian Losarcosi bi minutu pasa ateratu eta gero. Iker Mintegi 13. sailkatu zen, Jon Erdozia 20. eta Oihan Etxeberrria 24. Eta kadeteen gizonetako mailan Mikel Uncilla igo zen podiumaren gorenera (34:57), Arabarrak taldeko Oier Ruiz de Arkauteri 7 segundo ateratu. Aimar Tadeo 6. sartu zen, Mikel Regil 16. eta Aritz Oiarbide 22. Bukatzeko, emakumezkoen kadete mailan Nahia Imaz altsasuarra izan zen txapelduna (28:52), Maria Modenesi 33 segundo ateratu.

Hurrengo egunean, abenduaren 22an, Aiarako Ziklo-krosa jokatu zen, Arabako Txapelketa, eta helduetan Gorka Izagirre hirugarrena sailkatu zen. Kadeteetan Mikel Uncilla 23. postuan sartu zen eta Aritz Oiarbide 30. tokian.

### Euskadiko Txapelketa Izagirrerendako, eta Arrieta txapeldunorde

Abenduaren 29an Euskadiko Ziklo-Kros txapelketa jokatu zen Lezaman. Gorka Izagirrek lehia ederra izan zuen Aitor Hernandezekin eta Xabier Muriasekin, baina azken aurreko itzulian aurrea hartu zuen Ziordikoak eta Euskadiko txapelduna izatea lortu zuen (57:10).



Gorka Izagirre pozik Ormaiztegin, jaioterrian irabazi eta gero. ASTANA

## IZAGIRRE, ARRIETA, ERDOZIA, MINTEGI, UNCILLA, REGIL, TADEO ETA IMAZ, PONTEVEDRARA

Juniorretan, Aitzol Sasieta (Ekin) izan zen txapelduna (38:51), ordura arte jokatu-tako ziklo-kros lasterketa guztiak irabazi zituen Igor Arrietari 5 segundo ateratu. Azkena ateratu zen Arrieta, eta nahiz eta postuak aurreratzen joan, ezin izan zuen Sasieta harrrapatu. Iker Mintegi 23. sartu zen, Jon Chamorro 26. eta Oihan Etxeberrria 44. Kadeteetan El Proex-eko Markel Olabek irabazi zuen (25:59), Mikel Uncilla 8. postuan sartu zen, Mikel Regil 12. ean eta Aritz Oiarbide 24. ean.

### Tadeo bigarrena Aragoi

Abenduaren 29an ziklo-kros txapelketa jokatu zen Vera de Moncayon, Aragoi. Bertan aritu zen Aimar Tadeo txirrindulari launtzarra. Kadete mailan bigarrena sailkatu zen, Cesar Gonzalez irabazlearengatik 18 segundora. Eta ilbeltzaren 4an jokatu-

tako VI. Torrelavega Hiria ziklo-krosean, kadete mailan 9. postuan sailkatu zen Tadeo, Mario Grande irabazlearengatik 2 minutu eta 7 segundora.

### Izagirre jaioterrian garaile

Ilbeltzaren 5ean XLIX. Ormaiztegiko Ziklo-kros lasterketa eza-guna jokatu zen. Garaipena etxean geratu zen, Gorka Izagirre (1:00:10) gailendu baitzitaion anaiari, 13 segundoko aldearekin.

Juniorretan Iker Mintegi 13. sailkatu zen, Jon Erdozia 32., Jon Chamorro 33. eta Oihan Etxeberrria 34. Kadeteetan Mikel Uncilla laugarrena izan zen, Aimar Tadeo 8., Mikel Regil 23. eta Aritz Oiarbide 26. Emakumezkoetan Nahia Imaz hirugarrena (38:01) sailkatu zen.

### Espainiako Ziklo-kros Txapelketa Pontevedran

Asteburuan Espainiako Ziklo-kros Txapelketak jokatu dira Pontevedran. Igor Arrieta, Jon Erdozia, Iker Mintegi, Mikel Uncilla, Mikel Regil, Aimar Tadeo eta Nahia Imaz ariko dira Nafarroako selekzioarekin. Gorka Izagirre eliteen mailan ariko da, eta faboritoen artean dago.



Zuriñek eta senitartekoez dirulaguntzaren txekia jaso eta talde argazkia atera zuten. UTZITAKOA

# Ziordian 11.838 euro bildu ziren Zuriñerendako

**ARETO FUTBOLA** Ziordiko Eguberritako Areto Futbol Torneo Solidarioan jasotakoa Rett sindromea duen Zuriñe Azkona zizurtarrari bideratu zaio, haurra komunikatu ahal izateko dispositiboa bat erosteko

Abenduaren 29an jokatu zen Ziordiko Eguberritako Areto Futbol Torneo Solidarioa, Zizurren bizi den eta Rett sindromea duen Zuriñe Azkona haurraren aldekoa. Ziordiko Running taldeak antolatutako ekimena, Ziordiko Udalarekin batera. Areto futbol torneoan Nafarroa eta Arabako 10 taldek hartu zuten parte bertan, eta 5 jardunaldiko ligaxka

jokatu eta gero, talde onenak sailkatu ziren finalerako. Azkenean, Gasteizko Astralarialo taldea gailendu zen.

## Zozketa eta beste

Ziordiko Eguberritako Areto Futbol Torneo Solidarioan jasotako guztia, 11.838 euro, Zuriñe Azkonaren senitartekoei eman zion antolakuntzak. Diru hori

lortzeko lan handia egin da. Torneoan izena emateagatik 30 euro ordaindu zituen talde bakoitzak; horretaz gain, hainbat eta hainbat kolaboratzailek, komertzioek eta kirol taldeek eskainitako produktuekin sortutako saski erraldoia zozketatzeko txartelak salduz 5.013 euro lortu ziren; eta Sakana Group kooperatibak emandako 5.000 euroekin eta

gainontzeko ekarpenekin batera lortu zen 11.838 euroko ekarpena.

## Zuriñe komunikatu ahal izateko dispositiboa

Zuriñeren gurasoek, Asier Azkonak eta Belén Cachok, Zuriñek berak eta Haizeak, bere ahizpak, jaso zuten txekia. Eta jakina, oso eskertuta zeuden. "Sentitzen duguna adierazteko ez dugu hitzik. Rett sindromea duen alaba izatea ez da erraza, baina zuek bezalako pertsonekin badirudi guztia posiblea dela" adierazi zuten amak, hunkituta. "Milesker gurekin egoteagatik; eskerrik asko zuen babesa eta elkartasunarengatik eta ea egunen batean Zuriñek berak zuei eskerrak ematea lortzen duen" gaineratu zuten. Izan ere, Ziordian jasotakoa Zuriñeri Irisbond izeneko dispositiboa erostera bideratuko du familiak. Dispositibo horrek begirada hartzen du oinarri eta pertsonen begiak eta begirada ordenagailu baten xagua izatea ahalbideratzen du. Horrela, Zuriñeri komunikatzeko tresna ahalbideratu nahi diote, gertu dagoen ametsa. Halaber, ekimenak izandako arrakastarengatik pozik zegoen antolakuntza.

## "EA DISPOSITIBO BERRIAREKIN ZURIÑEK BERAK ZUEI ESKERRAK EMATEA LORTZEN DUEN"

## SAKANAKO TOPAKETAK

### KIMUAK. 8. JARDUNALDIA

#### IGANDEAN LAKUNTZAN

10:00	Altsasu B - Suteqi
11:00	Altsasu C - Etxarri-Hartzabal
12:00	Etxarri-Danbolintxulo - Etxarri-Epele
13:00	Lagun Artea 08 - Lagun Artea 09
	Atsedean: Altsasu A

## ELOMENDI TXAPELKETA.

### 11. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zalduak atsedean jarduna zuten

#### SAILKAPENA

#### ELOMENDI KO FUTBOL TXAPELKETA

1	Barasoain	27
3	Zaldua	22

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### LARUNBATEAN

Z/G Bidezarra - Zaldua (Noainen)

Zalduak Bidezarra du aurkari bihar.



UTZITAKOA

## Olaztiko torneo Batzarrerendako

**ARETO FUTBOLA** Abenduaren 28an IV. Hierros Aldasoro Areto Futboleko Torneoa jokatu zen Olaztin. Uharte Arakilgo Aralar Mendik, Araiako Alipendi Zalditxok eta Gasteizko Batzarrek hartu parte zuten eta Gasteizko Batzarrek irabazi zuten, Aralar Mendiren eta Alipendi Zalditxoren kontrako partidak irabazi eta gero.

## SASKIBALOIA CBASK-ek urtea Miranda de Ebron hasiko du

Nafarroako eta Errioxako taldeak lehiatzen diren Autonomien Artereko Saskibaloiko 2. mailan, urte bukaeran 11. jardunaldia jokatu zen eta urtea galduz despeditu zuten CBASK-Jatormanek, Humiclimak 58 eta 69 irabazi baitzion talde altsasuarrari Zelandin jokatutako partida estuan.

Sailkapenean, Club Baloncesto Cenicero da liderra (21 puntu) eta CBASK-Jatorman 9.a da (14 puntu). Oporren ondoren bueltan da liga eta asteburuan 12. jardunaldia jokatuko da. CBASK-Jatorman taldea Miranda de Ebron ariko da igandean, 12:30ean, 13 punturekin sailkapenean 11. den Cronos Novadiet taldearen kontra. Ea urtea ongi hasten den.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Amigo - Lagun Artea	1-2
Etxarri Aranatz - Beti Casedano	0-4

#### SAILKAPENA

#### PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1	Arrotxapea	25
3	Lakuntzako Lagun Artea	24
14	Etxarri Aranatz	14

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

16:00 Lagun Artea - Etxarri (Lakuntza)

## Igandean bi talde sakandarren arteko derbia jokatuko da Lakuntzan

Abenduaren bukaeran ligako 13. jarduna jokatu zen. Lagunek garaipen polita lortu zuten Amigo taldearen kontra, Davilaren eta Unairen golei esker. Etxarri Beti Casedano hartu zuten eta nahiz eta lehen zatian Etxarri partida dominatu, gol aukerak huts egin eta Betik egoerari buelta eman zion, puntuak Casedara eramanez. Igandean preferente mailako Sakanako derbiaz gozatzeko aukera izango da Lakuntzan. Partida estua izango da, bi taldeek puntuak nahi dituztelako.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 13. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Amaya	2-3
-----------------	-----

#### SAILKAPENA

#### ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA

1	Universidad de Navarra	31
10	Altsasu	10

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### LARUNBATEAN

16:30 Iruña B - Altsasu (Iruñea)

## Altsasuk Iruña B du aurkari

Ligako azken jardunaldian Altsasu saiatu zen, baina ezin izan zuten Amayaren kontra eta azkenean talde gorritxoak 2 eta 3 galdu zuten. Bihar, larunbata, sailkapenean 8. den Iruña B du aurkari Altsasuk.

## EMAKUMEEN ERREG.

### 15. JARDUNALDIKO EMAITZA

Altsasu - Mutilbera	0-1
---------------------	-----

#### SAILKAPENA

#### EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1	Castejon	40
7	Altsasu	24

### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

15:30 Peña Sport - Altsasu (Tafalla)

## Altsasu Peña Sporten kontra

Lanera bueltatuko dira Altsasuko neskek. Etzi sailkapenean 4. den Peña Sporten kontra partida zaila du Altsasuk.



# 134 partaide Etxarriko Txakurkrosean

**TXAKURKROSA** Inoizko parte-hartzaile gehien izan zituen abenduaren 22an Etxarriko kanpinea antolatutako lasterketak. Igor Lanz Rapun satrustegiarrak izan zen proba osatu zuen sakandar bakarra eta 11. postuan sailkatu zen bikejoringean

Triku Trail Taldeak eta Euskantikross taldeak hainbat babesleren laguntzarekin antolatuta, abenduaren 22an III. Etxarri Aranazko Txakurkrosa jokatu zen Etxarriko kanpinea, hiru kategoriatan: txakurkrosa, txakurrari lotuta korrika egitea; patina, kirolaria patin moduko batean joatea, eta txakur bat edo gehienetan bi patinari tiraka; eta bikejoringa, parte-hartzaileak bizikletan joatea eta txakurra hari lotuta. Hiru modalitateak kontuan hartuta guztira 134 partaide aritu ziren, orain arteko kopururik handiena.

Goizetik hasita hasi ziren al-baitariak lanean, txakurrak behar bezala zeudela egiazatzeko. Izan ere, txakurren ongizatea eta segurtasuna, hori bermatzea da txakurkrosaren funtsetako bat. Eguraldi fresko baina paregabearekin jokatu zen proba, Beheko Basotik, Artxaneko pinudiarren atzealdetik eta Haritzen ibilbidetik pasatzen zen ibilaldi



Igor Lanz satrustegiarrak Etxarriko Txakurkrosa osatzen. MUNDUTIK BEGIETARA

ederrean barna. 6 km-ko ibilbide entretenigarria zen, errebolta, putzu, erreka eta gorabeherez betetakoa. Horrela, lokaztuta baina oso pozik iritsi ziren parte-hartzaileak Etxarriko kanpinea helmugara.

Patinetan 4 partaideren artean Sesmako Jon Gonzalez izan zen azkarrena, 6 kilometroak ia ordu laurdenean eginez (14:52). Bigarrena Xabier Agirre aizarnazabaldarra izan zen (18:12) eta hirugarrena Pedro Etxeberria

zumaiarra (18:42). Juan Bautista Urtasun urdiaindarrak irteera hartu zuen baina ezin izan zuen proba bukatu. Bikejoringa 12 partaidek osatu zuten eta Josu Varona donostiarra izan zen azkarrena (13:53). Bigarrena Ekaitz Erauskin hondarribitarra izan zen (13:53) eta hirugarrena Daniel Arenas galdakaoarra (16:13). Igor Lanz Rapun satrustegiarrak 11. postuan despeditu zuen lana (24:39), proba bukatu zuen sakandar bakarra. Eta emakumezkoetan, Sallesko Elsa Dubois gailendu zitzaion (18:26) Maite Erauskin donostiarrari (23:59).

Txakurkrosean, 111 partaide eta euren txakurrak iritsi ziren helmugara, Portugaleteko Iñigo Zarate buru zela (19:14). Lasterketa oso estua izan zen, bigarrena David Neira burlatarra izan zen (19:23), 9 segundora, eta hirugarrena Pedro Etxeberria zumaiarra, 14 segundora (19:28). Emakumezkoetan Sarah Ugarte tolosarra gailendu zitzaion (20:37) Huescako Tamara Vazquezi (22:41) eta Irungo Aida Maria Malesi (22:52). Guztiek probaren edertasuna eta antolakuntza bikaina nabarmendu zituzten.

## Eguna "arrakastatsua" izan zela dio antolakuntzak

Etxarriko Txakurkrosean antolatzaile lanetan ibili zen Igor Artieda etxarriarrak probaren balorazio bikaina egin du. "Izugarri arrakastatsua izan zen eguna, eguraldiaren aldetik,

parte-hartzearen aldetik, giroa-erengatik, antolakuntzatik ere oso ongi aritu ginen... 134 izen-emate izan ziren 3 diziplinak kontuan hartuta, eta gurea inguruan egiten diren probetatik izen-emate gehien izaten dituen proba izatera pasa da. Horrek erakusten digu urtetik urtera, eta nahiz eta proba gaztea izan, aurtengoa 3. edizioa izan baita, egonkortuta dagoela, egutegian jendeak data gordeta duela Etxarri etortzeko. Hori nabarmen ikusi genuen egunaren emaitzarekin eta entzun genituen aipamen, iritzi eta ekarpen guztiekin. Oso kontentu gaude eta datorren urterako ideia berriak ditugu eta gogotsu gaude beste horrelako egun borobil bat antolatzeko" adierazi digu Artiedak. Partaideen jatorrian ere aldaketak izan dira. "Gehienak bertakoak dira, baina lehen aldiz estatu frantsesetik parte-hartzaileak etorri ziren, 11 inguru, Kataluniatik iaz ere egon ziren baina aurten gehiago etorri dira, eta baita ere Huescatik, Madrildik, Zaragozatik, Errioxatik, Asturiasetik... kanpotik ere geroz eta jende gehiago etortzen da" gaineratu du.

## "EGURALDIA, PARTE-HARTZEA, GIROA, ANTOLAKUNTZA... OSO ARRAKASTATSUA IZAN ZEN TXAKURKROSA"

## Mendiak, festa eta topaleku

**MENDIA** Urtea despeditu eta urte berriari hasiera emateko makina bat sakandarrek mendira jo dute: Erga (argazkian), Urbasa, Beriain, Aralar... mendizalez bete dira. Eta abenduaren 22an mendizaleek Aralarren bat egin zuten, 55. Mendigoizale egunean. Iaz Nafarroan 11.062 mendi lizentzia egin ziren, eta aurten federazioak zifra gaitzitea aurreikusten du.







Irurtzunen goiztiarrenak izan ziren eta hotzari aurre eginez, primerako giroan ibili ziren txikiak eta nagusiak. ITZIAR MATXAIN



Altsasuko San Silvestrea jendetsuena izan zen: 600 korrikalaritik gora aritu ziren.

# 2019 urteari agur: San Silvestreak Sakanan

**ATLETISMOA | TXIRRINDULARITZA** Abenduaren 31n, goizez, 280 txirrindulari Urbasara igo ziren Altsasutik, XXXVII. San Silvestre martxan. Arratsaldean Altsasu, Olazti eta Irurtzango San Silvestre oinezko lasterketak burutu ziren, giro ezin hobean

2019ko urteko azken eguna lainotsu eta hotz esnatu zen. Hala ere, 280 txirrindulari bildu ziren Altsasuko Foru plazan, bizikleta hartu eta Altsasuko Kirol Elkar-teak antolatutako 37. San Silvestre Txirrindularitza Martxan parte hartzeko. Ion Zeberio eta Cristina Barrajon iritsi ziren lehenak Urbasara, eta bertan salda beroa zuten zain, biziki esker-tu zutena. Martxa arratsaldetik goizera aldatu zutenetik, gora egin du etengabe parte-hartzeak, aurten ere errekorra apurtuz.

**Altsasan, Sergio Garcia Eulate eta Izaskun Beunza txapeldunak** Abenduaren 31n, korrika eginez despeditu zuten urtea 600 korrikalari baino gehiagok Altsasan. Hasteko, 100 neska-mutiko baino gehiagok parte hartu zuten kategoría txikiko lasterketetan, eta ondoren, 14 urtetik gorako 495 korrikalarik ekin zioten Altsasuko 41. San Silvestre proba nagusiari, Nafarroako proba beterranoenari. EH Bilduko diputatu Bel Pozuetak eman zion irteera probari, eta gero batu egin zen lasterketara. Jone Belarra, Unidas Podemos taldeko Altsasuko beste diputatua ere gonbidatua zegoen probari irteera ematera, baina ezin izan zen bertan egon.

Zirkuituari 3 itzuli emanez, 5 km inguru osatu behar izan zi-

tuzten korrikalariek, laino artean eta hotz izugarriari aurre eginez. Hasieran, Beñat Katarain mendi korrikalari lakuntzarrak hartu zuen aurrea, baina Sergio Garcia Eulate altsasuarrak erritmoa bizkortu eta proba irabaztea lortu zuen (16:00), lakuntzarrari 4 segundo aterata. Bere seigarren San Silvestrea irabazi zuen Garcia Eulatek. Hirugarrena Ruben Mendieta atleta olaztiarra izan zen, 31 segundora (16:31).

Emakumezkoetan, Izaskun Beunzak ez zuen areriorik izan eta bera gailendu zen, nagusitasun osoz (18:11). Seigarren aldiz irabazi zuen ere korrikalari olaztiarrak. Leire Estarriaga etxarriarra (19:45) bigarrena izan zen, eta Haizea Ramirez de Alda altsasuarra (20:01) hirugarrena.

Urteari ere primerako hasiera eman zion Sergio Garcia Eulatek, ilbeltzaren 5ean jokaturako Azkoiengo Erregeen Krosa irabazi baitzuen.

## Olaztin Raul Audikana eta Maitane Vilariño olaztiarrak gailendu ziren

111 korrikalari inguruk parte hartu zuten Sutegi taldeak antolatutako 18. Olaztiko San Silvestrean. Ohikoa denez, 4 kategorietan jokatu ziren lasterketak, giro ederrean. 7 urte bitarteko arto lasterketan Jaliana, Mar-

kel Araña eta Lier Lopez de Goikoetxea gailendu ziren mutilen mailan, eta Maialen Aldabe, Iman eta Nora Luquin nesken mailan; 8 eta 11 urte bitarteko lasterketan Mikel Aldaz, Eneko Pinto eta Yusef izan ziren azkarrenak mutiletan eta Haizea Trevejo, Iria Castro eta Naroa Otxoarrarte emakumezkoetan; 12 eta 15 urtekoen artean Ander Amezgarai, Ahsraf eta Haran Trevejo izan ziren azkarrenak mutiletan eta Maren Huegun, Mara Gomez eta Maddi Goya emakumezkoetan; azkenik, 16 urtetik gorako proba nagusian Raul Audikana, Eduardo Lezea eta Gorka Acebes gailendu ziren gizonzkoetan eta emakumezkoetan Maitane Vilariño, Miren Lezea eta Vanesa Galbete.

## Irurtzunen giro bikaina III. Pikubestean

Irurtzango Pikuxar Euskal Txokoak urteko azken egunean antolatutako III. Pikubestre lasterketa arrakasta handikoa izan zen. Hasieran 6 urte bitarteko neska-mutikoak aritu ziren korrika, gero 6 eta 14 urte artoak eta, azkenean helduak (4,2 km), Gernika plaza ardatza zela, giro bikainean. Bukatzerakoan, Barazki gunean jarritako karpan opari ederrak zozketatu zituen Pikuxarrekin.



Olaztin guztira 111 korrikalari aritu ziren San Silvestrean. SUTEGI



Urtetik urtera partaidetza handiagoa da Altsasuko San Silvestre Txirrindula martxan.



## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 10

**ALTSASU** Gazte agenda.  
Serigrafia tailerra.

18:00etan, Intxostiapunta gazte txokoan.

**ALTSASU Uholdeak, mahaira** arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko erakusketa ibiltariaren mustutze ekitaldia Maria Ozcoidi komisarioaren bisita gidatuarekin.

18:30ean, lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

**IRURTZUN Lasa eta Zabala** filmaren emanaldia Irurtzun eta Arakilgo Gazte Asanbladak antolatuta. Ondoren, Larrazpin pintxo-pote musikatua.

19:00etan, kultur etxean.

**IRURTZUN 2019ko mendi irteeren eta Sakanako** Ibilaldiaren proiektzioa, 2020ko mendi egutegiaren banaketa eta auzatea.

19:00etan, Iratxo elkartean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.

20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske** kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU Jumanji, siguiente nivel** gaurkotasunezko filmaren emanaldian.

22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 11

**ALTSASU** Emozioen kudeaketa ikastaroa.

10:30etik 13:30era, Intxostiapunta gazte txokoan.

**ALTSASU** Gazte agenda. Poker eta mus txapelketak.

18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU A la deriva** Medicos del Mundo GKE-aren antzezlanaren emanaldia egingen du Tarima Beltza

**ALTSASU Uholdeak: mahaira** arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko erakusketa ibiltaria. Uharte zentroa eta CAN fundazioa. Urtarrilaren 10etik otsailaren 2ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatean emanaldia baino ordu bat lehenago eta igandetan 19:00etatik 21:00etara, lortia kultur guneko erakusketa gelan.

**IRURTZUN** Saisol sormen tailerraren erakusketa.

Abenduaren 26tik urtarrilaren 26ra. Pikuxar euskal txokoan.

antzerki taldeak. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatuta.

19:30ean, lortia kultur gunean.

## IGANDEA 12

**OLATZAGUTIA IV.** Txori erakusketa eta trukaketa.

10:00etatik 14:00etara, udal pilotalekuan.

**ETXARRI ARANATZ V.** Zama doinuz arindu elkartasunezko jaialdia.

17:00etan eta 19:30etan, kultur etxean.

**ALTSASU Lur eta Amets** familarteko ikuskizuna.

17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU Jumanji, siguiente nivel** gaurkotasunezko filmaren emanaldian.

19:30ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU ¿Podrás perdonarme algún día?** zineforum filmaren emanaldia.

19:40ean, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 13

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Sakanako Pentsiodunen eta Adinduen Koordinakundea.

12:00etan, plazan.

## ASTEARTEA 14

**ALTSASU Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, sentikortasun kimiko anitzkoitza** hitzaldia.

Hizlaria: Joaquin Espinazo AFINAKo presidente. AFINAK antolatuta.

17:30ean, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 16

**ZIORDIA La danza de los tulipanes** liburuaren kafe-solasaldia Ibon Martin idazlearekin.

18:30ean, liburutegian.

**ALTSASU El blues de Beale Street** zineforum filmaren emanaldia.


19:00etan, lortia kultur gunean.

ZORIONDU ETXEKO TXIKIA!


ZORION@GUAIXE.EUS  
618 882 675

## EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 10



Larunbata, 11



Igandea, 12



Astelehena, 13



**DE KOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU  
Tel./Faxo: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



## Joseba Azpiroz Hernaiz

"Aske, alai, hegan egin, zure zain duzu eta maite duzu hori"

**Zure sorginak**  
Altsasun, 2020ko urtarrilaren 6an

OROIGARRIA

## Txomin Leñena Isasti

'Txomin panadero'  
III. urteurrena

Nahiko genuke zuk erakusten zenuen indarrari eutsi, baina albotik joan zifrenik oraindik ezin sinetsi. Oroitzapenak gurekin daude eta gainera ez gutxi, zauden tokian zaudela guretzat leku bat utzi.

Beti gure bihotzetan, maite zaitugu.

**Etxekuek**

PASAIA-URDIAIN,  
2020ko urtarrilaren 8an

OROIGARRIA



## Joxe Mariñelarena

I. urteurrena

Aittuna zure utsunie nabaitzen diau enkarteladan

Maitasunez  
**Oihan, Jon eta Ekhine**  
Etxarri Aranatz

OROIGARRIA



## Joxe Mariñelarena

I. urteurrena

Beti yonko za gu onduen.

Maitasunez  
**Etxekuek**  
Etxarri Aranatz

**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskelak@guaixe.eus](mailto:eskelak@guaixe.eus)



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK  
**ALTSASU**    **ETXARRI ARANATZ**  
Santa Cruz, 6    Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

### JAIOTZAK

- **Ekhi Lazkoz Rayo**, abenduaren 22an Altsasun
- **Ariana Torres Jimenez**, abenduaren 22an Irurtzunen
- **Mame Oly Ndiaye**, abenduaren 28an Irurtzunen
- **Zakaria Hamdi**, abenduaren 30ean Irurtzunen
- **Iker Equiza Martil**, ilbeltzaren 2an Irurtzunen

### HERIOTZAK

- **Jose Mari Somocurcio Etxeberria**, abenduaren 20an Altsasun
- **Maria Isabel Amoztegi Lakuntza**, abenduaren 23an Altsasun
- **Victoria Mateos Diaz**, abenduaren 31n Altsasun
- **Josefa Ondarra Quintana**, abenduaren 30n Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### GALDUTAKOAK/ OPATUTAKOAK

#### GALDUTAKOAK

**Txamorra Etxarri Aranatz:** Gizonezko Geographical Norway(S) txamorra gris-beltza da eta kremailera gorri-laranjarekin, balkoitik erori zitzaidan Etxarri Aranazko kale nagusian. Ikusi baduzu deitu 626 216 612 fnora. Mila esker

#### OHARRAK

**Sei elkarterako boluntarioak:** Sei elkarterak bakarrik dauden adingabe atzeritarrekin asteen bi ordu egoteko 21 urtetik gorako boluntarioak behar ditu: asteartean Iturmen-din eta ostegunetan Altsasuko gazte gunean, 17:00etatik 19:00etara. Interea duenak 948 239 739 edo 673 329 449 telefonoetara hots egin dezake, edo [gestion@asociacionsei.org](mailto:gestion@asociacionsei.org) e-postara idatzi dezake. [www.asociacionsei.org](http://www.asociacionsei.org), informazio guztia dago.

**Extremadur erako txerri-hiltzea:** Altsasuko La Encina elkartean ospatuko da ilbeltzaren 18an, 09:30etik aurrera. Izen ematea hilaren 16ra arte egin daiteke 687 901 205 telefonora hots egin. Toki mugatuak.

**Garxot eguneko bazkaria:** Itzaltzun ospatuko den Garxot Egunaren

egitarauaren barruan bazkaria egonen da. Izena eman nahi duenak [txartelakgarxot@gmail.com](mailto:txartelakgarxot@gmail.com) e-postara zuzendu daiteke. 22 euro helduak, 10 hurrak. Begetaria-noendako aukera ere eskaintzen dute.

**Paris 365en alde:** Irurtzongo Iratxo elkartean Paris 365 jangela sozia-laren aldeko elkartasun diru bilketa egingen da ilbeltzaren 17tik 19ra. 18an, larunbatean, herri-afaria antolatuta da. Izena asteazkenera arte eman daiteke Pikuxarren edo Iratxo elkartean bertan. 19an, igande goizean, bestalde, material salmenta eta elkarteko taberna zabalik izanen da nahi duen guztiarentako. Larunbateko afarirako elikagaiak eman daitezke. Baita igandeko salmentarako materiala ere. Azken horretarako Itziar Matxainekin edo Txiki Iriartekin harremanetan jarri.

**Nafarroa Oinez 2019ri laguntza eman nahi izanez gero egin zure ekarpena ondorengo kontu korronteetan:** Laboral Kutxa ES39 3035 0102 3810 2005 4552 / Rural Kutxa ES58 3008 0003 0539 0183 6324 / Caixabank ES52 2100 3695 1322 1015 8880. Errenta aitorpenerako

zure ekarpenaren agiria bidaliko dizute etxera.

**Aralarko santutegi ondoan dagoen Laguntzaxearen eraikina zahar-berritzeko proiektua lagundu** nahi duenak ES 2700 754646 93 060 0001691 kontu korrontean egin dezake ekarpena. Mezenazgo Legean jasotako proiektua denez, dirua ematen dutenei errenta aitortzea egitean zati bat bueltatuko diote.

**Sakana Trenaren alde AHTrick Ez plataformakoak asteartero,** 19:00etan, elkartzen dira. Bilerak Sakanako herri ezberdinetan bandakatuz egiten dira. Informazio gehiago "Sakana Tren Sozialaren alde" Facebook profilean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonon edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

### Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:  
24,20 euro  
948 564 275

### Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 euro  
948 564 275

### IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKI@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKI@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

### ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-en argitaratuko dira.
- iragarki laburak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

## Jarri zure iragarki laburra!

948 56 42 75  
[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.guaixe.eus/iragarkiak](http://www.guaixe.eus/iragarkiak)





# Musikaren ahalmenaren berri emateko lana

'Los acordes de la memoria' dokumentala egiteko mikromezenazgo kanpaina egiten ari da Raul Madinabeitia musikaria. Josefina Arregi klinika psikogeriatrakoan martxan jarritako proiektua kontatuko du ikus-entzunezkoak

## ALTSASU

Oscar Wilde idazleak esan zuen musikaren artea oroitzapenetatik eta malkoetatik gertuen aurkitzen dena dela. Raul Madinabeitia musika katedratikoa iritzi berekoa da. Hainbat ikerketa izan ditu oinarri; azaldu duenez, burmuinaren eskuin aldean oroitzapenak, sentimenduak, emozioak eta abar daude, eta ez da denborarekin hondatzen. Aldiz, burmuinaren ezker aldean, besteak beste, mugimenduak daude eta hondatzen da. Musikaren bidez burmuinean "sartzeko" aukera dagoela uste du Madinabeitiak, "eta barruan dagoena mugitu". Ideia honekin Altsasuko Josefina Arregi klinika psikogeriatrakoan *Zure historiaren musika*. *Musika eta burmuina komunitatean* proiektua martxan jarri zuen hainbat tailerren bidez. Proiektuarekin jarraituz ekainean *Los acordes de la memoria* ikuskizuna egin zuen Iruñeko Gaiarren antzokian, eta, orain, proiektuaren inguruko dokumentala egin nahi dute. Ikus-entzunezkoa aurrera eramateko crowdfundings kanpaina jarri dute martxan.

*Zure historiaren musika* proiektu oso "berritzailea" dela esan du Madinabeitiak. Musikaren metodologia aktiboak



'Los acordes de la memoria' ikuskizuna egin zuten Gaiarre Antzokian. UTZITAKOIA

erabili dituzte Josefina Arregi klinikan egindako tailerretan: Dalcroze, Orff, Willems, Kodaly eta, lehenengo aldiz, Soundpainting. "Metodologia bakoitzak bere lan egiteko modua du". Hortaz, tailer bakoitzean forma desberdinak bilatu dituzte: abestiak kantatu, instrumentuak jo eta abar. Helburua musikaren bidez "haien istorioak kontatzea" da: "haur garaiko istorioak kontatzen dituzte, mugitzen dira, dantzatzen dute...". Proiektua ikertzaile batek zuzendu du.

Istoria "harrigarria" gertatu zitzaie proiektuaren aurkezpenaren egunean. Tailerrak zuzenean musikarekin egiten dituzte "beti", izan ere, musikariak azaldu duenez, instrumentuen bibrazioak gorputzean "sartzen" dira eta efektuak dituzte. "Gizon bat zegoen, klinikako pazientea zena, eta oso hunkituta zegoen. Emazteak esan zidan ea senarrak pianoa jo zezakeen. Baietz esan nion. Izenaz ez zen oroitzen, non goa zen ere ez zekien, baina akorde gutxi batzuk jo ondoren Chopinen Sonata bat jo zuen". Gaia-

rrren egindako ikuskizunean errepikatu zuen.

Musikaren eraginak dementzia edo alzheimer bezalako gaixotasunetan eragina duela erakutsi dute. "Ez dugu ikerketa zientifikorik egin, baina emaitzak ikusi ditugu". Proiektuan zehar egindakoa bideoan grabatu dute eta orain dokumentalaren bidez proiektua "zabaldu" nahi dute. "Medikuei erakutsi nahi diegu proiektu eta metodologia hauek eraginkorrak direla". Madinabeitiak azaldu duenez, proiektu "berritzailea" da eta medikuei azaltzen dietenean ez dutela oso ongi ulertzen. Hortaz, "zerbait egitearen beharra ikusi genuen. Modu bakarra zinean eta telebistan ikusi ahal izateko dokumentala zen".

## Klinika

Madinabeitiak aspaldi izan du proiektua martxan jartzeko ideia. "Ricardo Insausti medikua da eta elkarrekin txikitatik txistua jo dugu". Burmuina nolako den eta musikak eta sentimenduak nola eragin dezaketen izan da lagunen arteko eztabaida: "Prozesu luzea izan da". Musikaren metodologia aktiboekin aplikatu zitekeela bururatu zitzaion: "modu bortitzean esanda, metodologia hauek burmuinean eskua sartzen dute gauzak ateratzeko".

Josefina Arregi klinikaren historia ezagutu zuenean, "txundituta" gelditu zen Madinabeitia. "Felipe Lezea geratzen ez diren enpresari horietako bat zen: bere jendearengatik lan egiten zuen". Josefina Arregi emazteak alzheimerra zuen, eta ez zuen tratamendurik topatu, orduan, klinika sortzea erabaki zuen. "Jendeak Iruñean eraikitzeke esan zion, eta berak ezetz, dirua bere herrian eta bere jendea zegoen tokian

geldituko zela". Historiatatik eta bertan egiten diren tratamenduetatik aukeratu zuen musikariak Altsasuko klinika psikogeriatrakoan. Tailerrak "komunitatean" egin zituzten, izan ere, pazientearen "ongizatea" baina baita senideena ere hobetzen dela azaldu du Madinabeitiak.

Tailerrak doan egin dituzte klinikak lortutako diru-laguntzei esker, baina dagoeneko amaitu dira: "Horregatik ere egin duguna erakutsi nahi dugu, gehiagotan egin ahal izateko".

## Dokumentala

Josefina Arregi klinika psikogeriatrakoan egindako tailerrak, pazienteen senideei eta lagunei egindako elkarrizketak, Gaiarren egindako ikuskizunaren prestaketak eta nondik norakoak... *Los acordes de la memoria* dokumental *Zure historiaren musika* proiektuaren berri emango du. "Grabatuta dugu baina orain edizioa, muntaia eta musika jarri behar da".

Dokumentala aurrera ateratzeko crowdfundings kanpaina jarri dute martxan Verkami plataformaren bidez. Kolaboratzeko modu desberdinak daude. Gainera, proiektua Nafarroako Gobernuaren MECNA mikromezenazgoaren barruan dago eta, horri esker, % 80 zerga-arintzea dute parte hartzen dutenak. Dokumentala urte amaieran mustu nahi dute Golem zinemetan eta gero Iortia kultur gunean proiektatu nahi dute.

## "PROIEKTUAREN EMAITZAK ZABALTZEKO EGIN NAHI DUGU DOKUMENTALA"

# Autobus magikoan iritsiko dira Lur eta Amets bikiak Altsasura

Marraski bizidunetako filma iragartzeko ikuskizuna izanen da igandean, 17:00etan, Iortia kultur gunean

## ALTSASU

Otsailaren 6an mustuko dute *Lur eta Amets* haurrei zuzendutako euskarazko filma, eta aurretik filma aurkezteko bira egiten dute bi pertsonaiek. Etzi, igandean, 17:00etan, biki

abenturazaleen autobus magikoa Altsasura iritsiko da. Gonbidapena Iortia kultur gunearen txarteldegian lor daiteke.

Anai-arreba bikiak dira Lur eta Amets. Amonarekin asteburu pasa joan dira eta amonak

botereak ditu. Botere horiei esker Euskal Herriatik eta garai desberdinetatik abenturak biziko dituzte protagonistek. Lotura filmseko Miren Berastegik esan duenez, "abentura istorio bat da; garai desberdinetan gertatzen den abentura bat". Historia haurrei gerturatzeke edo "jakin-mina" sortzeke balio du filmak. "Garai desberdinetan kokatzen ditugu ikusleak".

Ikastolen Elkartek, Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak

2015ean Lur eta Amets proiektua martxan jarri zuten. Bikien istorioak kontatzen zituzten ipuinak argitaratu zituzten. Ondoren, Lotura film sartu zen eta filma egiteko ideiak aurrera egin zuten. "2017ko urrian hasi ginen pelikularekin eta orain mustuko dugu". Izan ere, ipuinen adaptazioa egin behar izan dute, ondoren, pertsonaiak marraztu eta bizia eman. "Prozesu luzea izan da". Lurrek eta Ametsek euskaraz hitz egiten dutela goraiatu du Berastegik:

"Bikoiztaileren hitzen gainean egin ditugu ahoen mugimenduak, beraz, euskaraz egiten dute".

Pelikula otsailaren 6an mustu aurretik promozio "bitxia" egingo dute Lurrek eta Ametsek. Autobus magiko batean Euskal Herriatik bira egingo dute. "Autobus batekin iritsiko dira herrietara eta gero antzezlan bat egingo dute". Antzezlan, filmaren sarrera edo aurrerapen bat izango da, eta birarako pertsonaiak "haragizkoak" dira.

# Elkartasun jaialdiaren bosgarren urteurrena

'Zama doinuz arindu' elkartasun kontzertu akustikoa izanen da igandean, Etxarri Aranazko kultur etxean. Bi emanaldi egingen dituzte "goi mailako" hamaika musikariek; 17:00etan eta 19:30etan. Musika jaialdi bat baino gehiago da

ETXARRI ARANATZ

"Zoritzarrez jaialdi hau egiteko arrazoiak baditugu oraindik". *Zama doinuz arindu* musika jaialdiaren 5. edizioa izanen da etzi, igandea, 17:00etan eta 19:30etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Kontzertuaren helburua "euskal presoei aplikatzen zaien salbuespenezko legedia salatu eta ematen diren hainbat eskubide urraketen zama arintzea da". Mikel Mundiñano Zato *Zama doinuz arindu* jaialdiaren antolatzailea: "Aldi berean, urtetan luzatu den gatazkaren konponbidean urratsak ematearen aldeko mezua zabaltzea".

Etxarri Aranatz "betidanik" herri bizia izan dela esan du Mundiñanok. "Betidanik elkar-tu gara auzolanean eta, mota bateko zein besteko ekimenak izanik ere, herritarren arteko elkarlanean oinarritu izan dira gehienak". Modu horretan hainbat ekimen eta proiektu aurrera eramane dituztela azaldu du. "Pozgarria da gurea bezalako herri txiki atean". Hortaz, herriko "izena eta izana" zabaldu dutela esan du. Etorbizuna norabide horretan oinarritu behar da, Mundiñanoren hitzetan: "Badakigu herri honek asko sufritu duela eta sufritzen jarraitzen duela oraindik. Urtetako gatazkak itxi gabeko zauriak utzi ditu. Zauri horiek ixtea guztioi dago-kigu, guztion artean elkarbizitza hori eraikitze".

Azken urteetan, "urratsatzuk" eman direla esan du Mundiñanok, "ez nahikoak, oraindik sufrimendu hor dagoelako". Beraz, "elkarbizitza eta bakerako norabide horretan presoen korapiloa askatzeko" bide horretatik sortu zen *Zama doinuz arindu* elkartasun jaialdia duela bost urte hainbat herritarren "ilusioarekin eta esfortzuarekin". Gaur egun, zazpi etxarriar daude momentu honetan espetxean eta "haien giza eskubideak urratuak izateaz



V. Zama doinuz arindu aurkeztu zuten urte amaieran.

## "MUSIKARIEK KALITATE HANDIKO JAIALDIA EGITEN DUGULA ESATEN DIGUTE"

gaien, senideenak eta lagunena-  
ere urratuak dira etengabe".


*Zama doinuz arindu* jaialdiak "euskal presoei aplikatzen duten espetxe politikaren eta eskubide urraketaren" inguruko gai bat jorratu eta salatu izan du. Aurtengo jaialdia "aldatu nahi" izan dutela azaldu du Mundiñanok, eta kontakizun edo gai bakarra landu beharrean, Etxarri Aranatz "falta diren" zazpi herritarren bizipenetan oinarritutako "hainbat kontakizun azalduko dira". Espetxe politikaren ondorioz ematen diren eskubide urraketan "salaketa" egingen dela esan du antolatzaileak.

### Artistak

Izen eta kalitate handiko eta estilo desberdinetako musikariak parte hartu dute orain arteko lau edizioetan. Besteak beste, Esne Beltza, Oreka TX, Ruper Ordorika,

Vendetta, Tapia eta Leturia, Su ta Gar, Fermin Valencia, Gorka Urbizu... baita herriko artistek ere. Aurten Anari, Zea Mays taldeko Aiora eta Piti, Juantxo Skalari, Esti eta Mikel Markez, Anita Parker, Haimar Arejita eta Keu Agirretxea, Bad Sound eta Rotem XIII musikariek parte hartuko dute. Jaialdia akustikoa da, eta abeslari bakoitzak bi kantu egingen ditu. Gainera, musikariak ez ezik, jaialdiaren kontakizunetan laguntzeko Juantxo Arakama Glaukoma taldeko abeslaria, Aitor Merino aktorea eta Jon Maia bertsolaria izanen dira, arte eta diziplina anitzeko jaialdia bihurtuz: "Berezia izanen da".

Kartela osatzea "kostatzen" dela aitortu du Mundiñanok: "Ekimena planteatu genuenean ez genuen uste honaino iritsiko ginenik". Musikariak elkartasunagatik datoz, eta "egun luzea" izaten dute aurretik: soinu frogak, bazkaria eta bi emanaldi jarraian. Kalitate handiko jaialdia egiten dutela diote ere jaialditik pasa diren artistek. "Pozik joaten dira etxera". Jaialdia egiteko arrazoiekin bat egiten dute, eta "haien ekarpenak pozik uzten dituzte".



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO

## Eguberri kanta

Ahots batek esnatu ninduen Gabon gauean. Ez zen Olentzero, emakume ahotsa baitzen, eta ea Maridomingi ote zen ikustera altxa nintzen. Emakumea zen gelan zegoen pertsona, apain eta fin jantzia. Euskal jantzi tradizioaletatik urruti, hemezortzigarren mendeko kondesa itxura zuen. Ada Byron zela esan zidan, Ada Lovelace bezala ezaguna dena, matematikari eta lehenengo programatzailea. Bere eskua luzatu zuen eta ukitzarekin batera iraganera hegaka hasi ginen, programazioaren lehenengo urratsetaraino. Emakumeak ageri ziren non nahi, programazioa emakumeen gauza zen, "arreta eta kontu" handiarekin egin behar zen lana zelako. Lehenengo ordenagailuak emakumeen eskuek erabiltzen zituzten, 80 hamarkadan gizonezkoek hartu zituzten arte.

Adak askatuta, beste esku batek heldu zidan. Esku honek indartsuago heltzen zidan, soldadu izandako emakume bat baitzen. Chelsea Manningek Wikileaks-entzako filtrazioak egin zituenetik

## Tarima Beltza antzerki taldearen erregistro aldaketa

Altsasuko antzerki taldeak Medicos del Mundo GKEaren *A la deriva* antzezlan egingen du bihar, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean. Sakanako Mankomunitateko Anitzartean zerbitzuak antolatu du ikuskizuna.

Tarima Beltza antzerki taldearendako antzezlan hau egitea "opari bat" izan dela esan du Juan Manuel Herrero *Zapa* taldeko kideak. Hala ere, antzezlanaren prestatzea "erronka" handia izan dela aitortu du. Lanak hainbat pasarteren bidez migrazioen "dramaz" hitz egiten du. Antzerki taldea komedia egitera ohituta dago, eta horregatik "hasierak zailak" izan zirela esan du aktoreak.

amesgaizto batean pasa du bizitza: torturak, kartzela, presioak... eta bere aurpegian argi ikusten ziren argi ilunak. Egungo egoera ikustera eramane ninduen Chelseak: programazio eta hacker munduan gizonezkoak dira nagusi. Eta matxitrollek izugarriko presioa egiten diete sarean dauden emakumeei.

Egungo egoerak kezkatu ninduen, baina Xiao Tian gazteak lasaitasuna transmititu zidan eskutik heldu zidanean. Hegaka etorkizunera eramane ninduen, bere lana erakutsiz. Maskulinizatutako hacker munduaren aurka borrokatzeko sortu zuen "China Security Team" taldea mundu guztira zabaldu zuten, emakume\*-ok gure artean zaintzeko helburuz, eta cyber mundu hau berreskuratzeko asmoz. Emakume\* asko ikusten ziren ordenagailu aurrean, baina beti ahizpatasuna eta zaintza bultzatuz.

Orduntze esnatu nintzen eta argi nuen 2020 berri honetarako helburua.

## Uholdeak: mahaira erakusketa, arte garaikidea zabaltzeko

Uharteko arte garaikideko zentroak eta La Caixa fundazioak Uholdeak arte garaikidea Nafarroan zabaltzeko programa antolatu du eta gaur Altsasura iritsiko da. 18:30ean mustutze ekitaldia egingen dute eta Mari Ozcoidi erakusketa komisarioak bisita gidatua egingen du. Erakusketa otsailaren 2ra arte egonen da Iortia kultur gunean.

Programaren barruan Bazkaloako hezkuntza programa jarri dute martxan eta horren barruan Leire Urbeltz artistaren tailerra izanen da urtarrilaren 18an, 11:00etatik 14:00etara, eta Maia Villotek arte eszenikoen zuzeneko ekintza egingen du zehazteko dagoen egunean.





Taberna Ibiltaria taldeak kontzertua eskaini eta eskultura mustu zuen.

## Taberna Ibiltariaren opariak "injustiziari" aurre egiteko

Talde bizkaitarrak elkartasunezko kontzertua eskaini zuen eta eskultura bat mustu zuen Altsasun

ALTSASU

2019. urtea amaitzear zegoela, Gabonetako oporretan murgilduta, Taberna Ibiltariak eta taldearen zenbait lagunek, berrogei bat lagun guztira, "Altsasuko gazteek" pairatzen duten "injustizia handiaren" aurrean "elkartasunezko" bisita egin zuten. Opari bikoitza egin zuten bizkaitarrek: alde batetik, kale-kontzertu bat eskaini zuten udaltxearen aurrean eta Foru plazan, eta, bestetik, eskultura bat mustu zuten. Eskultura taldeko kidea den Josu Aretxabaletaren lana da, eta udaltxearen lorategietan jarriko dute, Rufinoren kioskoa zegoen tokian.

Goiza hotz zegoen, baina Taberna Ibiltaria taldeari esker ezarriak berotu ziren. Izan ere, kontzertua entzuterat gerturatu zirenak kantatzera gonbidatu zituzten. Euskal kantutegia errepasatu zuten elkarrekin. Baina kontzertua ez ezik, mustutze ekitaldia ere bazen abenduaren 29an antolatutako ekimena. Taldeak Altsasukoak aske eta Altsasu Gurasoak plataformei oparitutako eskultura mustu zuten. Plataformek herriari eskaini diote eskultura. Eskultura erakutsi ondoren, Aurrekua eskaini zitzaizkien musika taldeari eta Bizkaitik etorritako lagunei eta eskulturari. *Aurrera Altsasu* kantatu zuten ondoren.

Hogei urte daramatza Taberna Ibiltaria taldeak euskal kultura "zabaltzen" eta mugak "gainditzen". Josu Aretxabaleta taldeko kidea da: "Ideia politikoen gainetik dago

gure kultura, eta guk moldeak apurtzen ditugu". Altsasu bisitatzen zuten bigarren aldia da; 2018ko festetan egon ziren ere. Altsasura taldearen "elkartasuna, maitasuna eta indarra" ekartzera etorri ziren. Musikaren bidez eta artearen bidez eskaini zuten "ahal zuten guztia".

### Eskultura

"Nire lana ez da hori, baina batzuetan eskulturak egiten ditut". Aretxabaleta da mustu zuten eskulturaren egilea. Eskultura haritzaren egurrekin eta burdinarekin egin dago. "Barroteek Espainiako estatuaren erreprezioa edo inposizioa islatzen dute". Euskal Herriak "nahi dugun bezala ezin egotearen" erakusle handienak "Altsasuko gazteak" direla gaineratu du Aretxabaletak. Banderatik kendu zuten, baina oraindik hortik dabilzan arranoaren atzaparretan gaude". Eskulturaren goikaldean eguzkilore bat dago, Euskal Herria islatzen duena: "Eta lore hobereak Altsasuko gazteak dira".

"Beti esaten dugu txarrenari onena atera diogula, hau da onena". Altsasuko auziaren hiru urtetan "jende zoragarria" ezagutzen ari direla esan zuen Antxon Ramirez de Alda Altsasu Gurasoak taldearen izenean. "Hainbat hitz aurkitu ditugu: betetzen ez diren justizia eta askatasuna, eta elkartasuna eta duintasuna, gainezka egiten digutenak". Taberna Ibiltariaren elkartasuna Zaballara "iritsiko dela" aipatu zuen Ramirez de Aldak.

# Idazle berriendako lehiaketan beteranoak

Bi sakandarrek saria irabazi dute Iruñeko Udalak duela 29 urte antolatzen duen literatur sarietan. Joxe Aldasorok aipamen berezia jaso du narrazio laburrean eta Nerea Baldak olerki sailean bigarren saria irabazi du

IRURTZUN / ETXARRI ARANATZ

Idazle Berrientzako Literatur Lehiaketa ongi ezagutzen dute Joxe Aldasoro etxarriarrak eta Nerea Balda irurtzundarrak. Iruñeko Udalak antolatzen duen euskarazko literatur lehiaketak hiru modalitate ditu, narrazio laburra, olerkia eta bertso-papera, eta modalitate bakoitzean hiru sari banatzen dira. Aipamen bereziak ere baditu lehiaketak. Neurri aldetik ere "polita" dela esan du Baldak: "Parte hartzeko aukerak ematen ditu". Gainera, sariak "inportanteak" dira: 1.500, 1.000 eta 500 euro atal bakoitzean, eta 250 euro aipamen berezia. "Lehiaketa guztiak bezala, bada-kizu norbaitek testuak irakurriko eta baloratuko dituela", esan du Aldasorok. Sarietaren 29. edizioa izan da 2019. urtekoa, eta hori ere parte hartzeko orduan baloratzekoa dela azaldu du Aldasorok: "Polita da". Urte amaieran lehiaketaren sariak banatu zituzten: Baldak olerki sailean bigarren saria irabazi zuen eta Aldasorok narrazio laburrean aipamen berezia.

Bi idazleak beteranoak dira literatur lehiaketan, Izaskun Etxeberria altsasuarrarekin batera. Nerea Baldak olerki sailean bigarren saria irabazi du *Asmo dekalogo* poesiagatik. 2018ko edizioan Baldak bi lehenengo sari jaso zituen narrazio laburra eta olerkia modalitatean. "Aurreko bi urteetan banituen prest aurkezteko moduko bi lan txukun bai narrazioan bai poesian, eta bietara aurkeztu nintzen". 2019ko ediziorako "hortxe ibili naiz" eta aukeratu beharra zuela ikusi zuen.

Baldak poema batzuk idatzita zituen: "Ikusi nuen guztietan bazegoela aholku modukoak, agintera bazuten, baina aldi berean gauzak aldatzeko asmoak zeuden horren atzean". Ildo bat zuten: "Dekalogo bat zirudien eta hortik jo nuen". Epaimahaia- ren arabera, gehiago irakurtzen



Literatur Lehiaketaren irabazleak, Nerea Balda eskuinetik lehenengoa. IRUÑEKO UDALA

## 2018KO EDIZIOAN NEREA BALDAK BI SARI IRABAZI ZITUEN, ETA JOXE ALDASOROK AIPAMEN BEREZIA

jarraitzeko gogoak ematen ditu irurtzundarrak sortutako olerkiak: "Dekalogo hamar esan nahi du, baina gutxiago ziren eta arau bakoitzari lotutako poemak zeuden. Hortik luzatzeko aukera bazegoela esaten zuten". Poesia urtean zehar idazten du Baldak, eta gero poemak bildu eta "bidali" lehiaketara bidali zituen. Beste batzuetan, iazko narrazioa kasu, lehiaketarako propio sortu ditu lanak. "Ideia bat nuen buruan eta lehiaketara egokitzen zela ikusi nuen".

Duela zenbait urte "fundamentuzko" zerbait egiteko gogoak sartu zitzaizkion, eta horretara jarri zen. Idazteko maniarik ez du, baina bai idatzitako aurretik "prozesu mentala" izan ohi duela aitortu du.

Joxe Aldasororen sortze prozesua, aldiz, "kaotikoa" da. "Idei pila bat daukatzat eta zirriborro

bat egiten hasten naiz, agian ez du balio eta alde batera uzten dut...". Forma hartzen duenean "errazagoa" dela azaldu du. Idazle Berrientzako Literatur Lehiaketan aipamen berezia jaso du etxarriarrak bigarren urtez. "Aurkeztu naizen lehiaketetan garrantzitsuenetarikoa da Iruñeko". Lanak idazten dituela eta lehiaketetara bidaltzen dituela esan du: "Batzuetan sariren bat jasotzen dut, beste askotan ez".

Familia izan ohi da Aldasororen narrazioen "aitzakia edo tresna"; gai bat hartzen du eta "arazoei edo problemei" buruz hitz egiteko modu "inkonzientean" familia erabiltzen du: "Zorionez edo zoritxarrez familiak oso presente daude". "Zorionez" ere gaur egun familia modelo asko daudela esan du.

*Moldakaitza* Iruñeko Udaleko literatur lehiaketan narrazio laburrean aipamen berezia jaso duen lanean, beraz, etxarriarrak haurrak hezitze modu desberdinak, iritzi desberdinak eta sortzen diren arazoak jorratzen ditu: "Hezkuntzaren ingurua sortzen diren arazoak edo konfliktuak", ama hiltzen den famili bat oinarri dela.





Jose Migel Etxandia bere etxeko olibondoekin. REBEKA MENDOZA

# "Lorategian izateko zuhaitz aproposena da"

Harrigarria da olibondoak Sakanan topatzea, Olatzagutian adibidez, Urbasako magalean olibondoak inguratutako etxe bat dago. Bertan, Jose Migel Etxandia bizi da

Rebeca Mendoza OLATZAGUTIA

## 1 Zenbat olibondo dituzu eta zergatik landatu zenituen olibondoak?

Zortzi olibondo ditut etxeko lorategian. Hosto iraunkorreko zuhaitzak etxean apaingarri bezala jartzeko nahi genituen eta olibondoak jartzea bururatu zitzaigun.

## 2 Nondik ekarri zenituen olibondoak?

Tafallatik ekarri genituen. Bertatik handiak zirenean atera eta hemen birlandatu genituen.

## 3 Orain dela zenbat urte birlandatu zenituen?

Orain dela 15 urte. Baina zuhaitzek 200 urte inguru izango dituzte.

## 4 Nola izan zen garraiatzeko prozesua?

Tafallan induskailu baten bidez atera genituen, gero trailer batekin hona ekartzeko. Hemen bitartean zuloak prest genituen beste induskailu batekin egindakoak eta etorri bezain laster birlandatu genituen. Prozesu hori egiteko zuhaitza guztiz kimatuta dago,

bakarririk adar nagusiak uzten zaizkio. Prozesuan zehar zuhaitzak sufritu arren gero erraz berpizten da.

## 5 Zer moduz moldatu ziren?

Zuhaitz espezie hau habitat guztietara ongi moldatzen da.

## 6 Klima honetan ez al dute sufritzen?

Neguan bakarrik. Elurrak haien adarrak puskatu ditzake, dena den, erne ibiltzen naiz eta makil batekin sobera duten elurra kentzen diet.

## 7 Baten bat inoiz gaixotu da?

Ez. Gainera, ez mihurarik ez antzeko plagarik ez dute izan.

## 8 Fruiturik ematen dute?

Bai, baina ez du merezi hartzea, oso txikiak dira. Lehen esan bezala apaingarri gisa erabiltzen

ditugu, fruituari ez diogu kasurik egiten.

## 9 Zenbat aldiz kimatzen dituzue?

Bi urtetan behin kimatzea gomendagarria da. Baina zuhaitzari eman nahi diozun formaren arabera gehiagotan kimatu dezakezu.

## 10 Inoiz urreztatu dituzue?

Oso ur gutxi behar dute; agorrilean bakarrik, bero handia egiten duenean, urreztatzen ditugu.

## 11 Ez zara damutzen olibondoak ekartzeaz?

Batere. Oso esperientzia ona izaten ari da eta hauek baino handiagoak ekartzeko asmoa dut. Niretako lorategian izateko zuhaitz aproposena da, urte osoan berde dago, erabilerraza da eta beste landareekin ongi eramaten delako.

